

**Aro Moderno eta Garaikideko gizarteen Arkeologia:  
Arroa Behea inguruko baserriak eta bertako  
bizimodua XX. mendean, ahanzturan erortzeko  
zorian dagoen errealitatea**



GRADU AMAIERAKO LANA

2020/2021 Ikasturtea

Historiako Gradua

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

EGILEA: Aritz Eizagirre Guenaga

TUTOREA: Jose Rodríguez Fernández

## **Laburpena**

Lan honetan Arroa Behea inguruko baserriak eta bertako bizimodua landuko dira, XX. mendearen 30eko hamarkada eta 80ko hamarkada bitartean. Azken hamarkadetan gizartean, ekonomian, politikan eta kulturaren aldaketa handiak eman dira eta horrek baserriari eta baserriko bizimoduari modu zuzenean eragin dio. Beraz, lan honen bidez eraldaketa horien aurreko edo bitarteko baserri mundua eta bertako bizimodua dokumentatu da, ahanzturan erori ez dadin.

Modu horretan, lehenik eta behin, baserriaren egitura aztertuko da. Hau da, baserriak non kokatzen ziren, zer nolako lurrak erabiltzen zituzten, horien jabea nor zen, etab. Hori guztia, ordea, baserria osotasunean harturik landuko da. Izan ere, baserriak eraikuntza soil gisa landu beharrean horren eraginpean zeuden egitura auxiliar, lur, mendi eta errekek ere aztertuko dira.

Ondoren, baserriaren baitako jarduerak azalduko dira. Hots, nekazaritzaren, abeltzaintzaren, frutagintzaren eta sagardogintzaren inguruko ezaugarriak eta zein lan egiten ziren. Horrez gain, ekoiztiko elikagaien eta hazien kontserbazioa nolakoa zen. Gero, soberakinaren kudeaketa zer nolakoa zen azalduko da. Beste era batera esanda, salmenta non, noiz eta nola ematen zen. Aldi berean, ekoizpena gauzatu ahal izateko eta bizirauteko baliabideez nola hornitzen ziren landuko da: ura, egurra, metalezko eta zeramikazko elementuak eta arropak nondik lortzen zituzten. Etxean ekoizten ez zituzten elikagaien horniketa ere bilduko da. Bestalde, bildutako toponimia ere ikuspuntu historikotik landuko da.

Halaber, ondarearen kudeaketaren ikuspuntua ere jorratuko da. Izan ere, ekonomiaren eta gizartearen aldaketa horren adibide argia diren poligono industrialak eta autopista tarteko Arroa Behea inguruan baserri ugari bota ziren, bizimodu horren amaiera ekarriz. Gainera, poligonoak zein autopistak baserrien arteko harremanak hautsi ditu, bideak guztiz aldatu baitira eta bi elementu nagusi horiek erdigunea hartu baitute. Hala, baserri/etxe multzoak sortu dira eta multzo horien arteko harremana oso murrizta da. Beraz, jakina da baserriari kalte nabarmena egin dietela bi elementu horiek.

Azkenik, etorkizunerako ikerketa bidean inguruan hausnarketatxoa burutuko da. Eremu txikiak eta gizarteak bazterrean utzitako baserria eta haren inguruko bizimodua ikertzea beharrezkoa dela aldarrikatzeko.

## **Aurkibidea**

1. Justifikazioa eta helburuak.....	3
2. Metodologia .....	4
3. Baserrien zerrenda: egoera eta babes-maila.....	6
4. Analisia.....	7
4.1. Baserria .....	7
4.1.1. Jabetza.....	7
4.1.2. Baserrien kokapena eta lurak.....	7
4.2. Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak.....	8
4.2.1. Nekazaritza.....	9
4.2.2. Abeltzaintza.....	12
4.2.3. Frutagintza eta sagardogintza.....	13
4.2.4. Elikagaien eta hazien kontserbazioa .....	14
4.3. Ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa: salmenta.....	16
4.4. Kanpoko hornikuntza.....	17
4.4.1. Ura.....	17
4.4.2. Egurra.....	18
4.4.3. Metalezko eta zeramikazko elementuak .....	19
4.4.4. Etxean ekoizten ez zen janaria .....	20
4.4.5. Arropak eta haren garbiketa .....	21
4.5. Toponimia .....	22
5. Ondorioak: ondarearen kudeaketa eta etorkizunerako ikerketa bideak .....	23
Bibliografia .....	25
Agiritegietako dokumentuak.....	25
Ahozko testigantzak.....	27
Eranskinak.....	28
Baserrien fitxaren eredia elkarriketen gidoiko galderekin .....	28
Baserrien fitxa teknikoak .....	30

## **1. Justifikazioa eta helburuak**

Jorratuko dudan gaia Arroa Behea inguruko baserriak eta bertako bizimodua XX. mendean izango da. Izan ere, lotura zuzena dut gaiarekin, Arroa Behekoa bainaiz eta gure familiak bertako baserri batean baitu jatorria. Zehazki gure aittitta Mardu baserrian jaio baitzen, jadanik botata dagoen baserrian. Txikitatik entzun izan ditut baserriko kontu zaharrak eta asko erakartzen nauen gaia da. Gainera, goitik behera aldatu da bizimodua gure amamen garaitik zein gure gurasoen haurtzarotik hona eta aldaketa horrek kolpe gogorra eman dio ehundaka urteetan bizitzaren eta kulturaren erdigune izan diren baserriei. Hala, jakina da baserria bera, ekoizpen eremu gisa, eta haren inguruko kultura eta bizitza galtzear dagoela. Ondorioz, gure herriko baserrien eta bertako bizimoduaren inguruko lana egitea erabaki nuen.

Beraz, nire lana geografikoki Arroa Behea inguruan kokatu dut, Arroa Behearen mugak oso lausoak baitira. Hori dela eta, Arroa Behera joateko joera zuten/duten baserriak sartu ditut lanaren baitan. Kronologiari dagokionez, XX. mendea jorratuko dut. Elkarrizketatuak 1929tik aurrera sortuak direnez, 30ko hamarkada eta 80-90ko hamarkada bitarteko epea da zehazki landuko dudana. Hau da, gerra ostean hasi eta baserrien gainbehera bitartean, Arroa Behea inguruan baserria eta bertako bizimodua zer nolakoa zen.

Gauzak horrela, nire helburu nagusia baserriei lotutako ondare materiala zein ondare ez-materiala biltzea eta dokumentatzea da. Ondare materialari dagokionez, oraindik mantentzen diren edo jadanik ez dauden baserriak identifikatzea da xedea, ekoizpenerako beharrezkoak zituzten lur, egitura auxiliar eta guzti. Baina, aldi berean, ondare ez-materiala jasotzea ere beharrezkotzat jotzen dut, baserriaren inguruan sortzen ziren/diren bizitza, jarduera, lan, ohitura eta bizipenik gabe baserria ez baita ezer, suhila besterik ez. Beraz, baserriaren inguruan burutzen ziren jarduerak, erabiltzen ziren hitzak eta lekuen izenak bilduko ditut.

Hori horrela, baserria (bere ustiaketa eremu guztia kontuan hartuta) eta haren bueltako bizitza biltzea da helburua. Gaur egunean, gizarte kapitalista honek baserriak bazterrean utzi ditu eta beharrezkoa da oroimenean gordetzea errealitate hori ahanzturan erori ez dadin. Hortaz, leku jakin bateko errealitate txiki bat aztertuko dut, historia txiki askok osatzen baitute historia orokorra, eta txikitasun honetatik historiari ekarpen txiki-handi hau egin nahiko nioke.



## **2. Metodologia**

Lan hau burutzeko jarraitu dudan metodologia anitza izan da, ez baitut lan bibliografiko soila egin. Izan ere, ezinezkoa litzateke gai hau modu horretan jorratzea, XX. mendetako baserriaren inguruko lan oso gutxi baitaude eta, are gutxiago, Arroa Beheari buruzko lanak. Baserriei dagokionez, Pedro Berriochoa Azcáratearen pare bat lanekin egin dut topo, Andoaingo baserrien ingurukoa bata eta Gipuzkoako baserrien inguruko lana bestea<sup>1</sup>. Baina, nahiz eta nik lantzen ditudan gai asko jorratu (lurrak, nekazaritza jarduerak...), bi lan horiek ez dute nik jorratu dudan garaia lantzen, aurrekoa hain justu, XIX. mendetik XX. mendearen lehen herenera bitartekoa, hau da, Espainiako Gerra Zibila hasi artekoa. Arroa Behearen inguruan, ostera, lan bakarra aurkitu dut<sup>2</sup> eta bertan ez da baserrien gaia lantzen. Hala ere, lana osatzeko atal batzuetan lagungarria izan da, adibidez, 1999an zaharrei eginiko elkarrizketak.

Gauzak horrela, beste bide bat hartu behar izan dut: materiala nik neuk sortzea. Horretarako landa lana ezinbestekoa izan da. Ondorioz, nire lanaren oinarri nagusia elkarrizketetatik eta miaketatik ateratako informazioa izan da. Lehenengoari dagokionez, guztira zortzi lagun elkarrizketatu ditut (ikus *Ahozko testigantzak*). Guztiek dute Arroa Behearekin lotura, bertan jaio edo bizi izandakoak baitira. Gainera, batek izan ezik (Primi Garate), gainontzekoak Arroa Beheko baserriren batekin lotura zuzena izan dute. Primi Garate, berriz, egun herriko zaharrentarikoak dugu eta horregatik haren testigantza biltzea egokitzat jo dut, lana osatzeko. Hala, elkarrizketa guztiak grabagailuz dokumentatu ditut. Bestetik, miaketa lanak ere egin ditut: baserrietara joan, lehen baserriak zeuden arrastoak bilatu eta aurkitu, argazkiak atera, etab.

Hori guztia egiteko, ordea, aurre-prestaketa beharrezkoa izan da. Horretarako, lehenik eta behin zein informazio bildu nahi nuen zehaztu nuen. Behin hori erabakita baserrien fitxa teknikoaren ereduak egin nuen, nire lanaren oinarria izango zena. Ondorioz, elkarrizketak egiteko gidoia fitxa teknikoaren atalei erreparatuz osatu nuen, nahiz eta beste galdera batzuk ere egin nituen (ikus *Baserrien fitxaren ereduak elkarrizketen gidoiko galderekin*).

---

<sup>1</sup> Honako hauek dira bi lanak: Berriochoa, P. (2014). *Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Eta Berriochoa, P. (2010). Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan. *Leyçaur: Andoaingo ikerketa historikoaren aldizkaria*, 11.znbk, 113-232.

<sup>2</sup> Bravo, R., Arzallus, F., Izaga, J.M., Urdangarin, C., Carballo, J., Manterola, I., Ossa, J. eta Gonzalez, I. (1999). *Arroa Behea, Auzo gazte baten historia*. Ezkaizto Arroa Beheko Auzo Elkarte.

Agerikoa den moduan, elkarrizketetatik ateratako informazioarekin ezinezkoa da fitxa teknikoaren atal batzuk betetzea, *Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak* atala, hain zuzen ere. Horretarako, batez ere, miaketan oinarritu naiz. Beraz, baserrietara edo zeuden lekuetara joan, argazkiak atera, kokapena nolakoa den ikusi eta egungo kontserbazio egoera bildu ditut.

Hala ere, beharrezkoa izan da GeoEuskadi Bisorea bezalako plataforma bat erabiltzea, batez ere, kokapena eta haren planoak zehazteko eta mapa historikoak ikusteko (historikoki 1945etik lurraldean eman diren aldaketak ikusteko, alegia). Gainera, GeoEuskadin ondare izendatutako elementuak eta haien babes-maila ikusi daitezke eta hori ere erabilgarria izan da. Izan ere, Arroa Behean hiru baserri daude ondare izendatuta: Aritzaga (4. Fitxa), Zelaikoa (5. Fitxa) eta Juandomingoenea (58. Fitxa). Lehenengo biak balizko ondare arkeologiko gisa eta azkena ondare arkitektoniko gisa izendatuta daudelarik. Esan beharra dago, Aritzaga baserriaren fitxan akatsa dagoela, Aritzagaren argazkia atxiki beharrean Arroaerrekan dagoen Igartza baserriaren argazkia dago eta. Bestetik, aipagarria da, baserri horien fitxak Eusko Jaurlaritzari (Kultura Ondarearen Zentroari) eskatu genizkionean, fitxekin batera eskaera bat ere bidali zigutela: Juandomingoenea baserriaren inguruan bildutako informazioa bidaltzea, haiek ez baitute fitxa osaturik. Beraz, hori ere lanak helburu praktiko bat ere badu.

Hori guztiaz gain, artxiboetara eta agiritegietara ere jo dut, baserrien jatorri historikoa apur bat biltzeko. Horretarako, Gipuzkoako Artxibo Orokorren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren online bilatzailea eta Dokuklik Euskal artxibo historiko publiko zein pribatu askoren dokumentazioa kontsultatzeko web ataria erabili ditut. Hortaz aparte, Iñaki Azkune Mendiaren *Zestoaren Historia* lanarekin topo egin nuen, zeinak Zestoa udalerriaren (Arroarena barne) inguruko dokumentazioa biltzen duen historiaurretik 1556. urtera arte<sup>3</sup>. Hala, lana bera eta bertan atxikita duen agiritegia oso baliagarriak izan dira baserrien jatorri historikoa aztertzeko.

Aitzitik, burutu ez dudana jardura bakarra indusketa arkeologikoa izan da, nahiz eta Arroa Behea inguruan eremu bat baino gehiagotan egitea oso interesgarria litzatekeen.

---

<sup>3</sup> Azkune Mendia, I. (2016). *Zestoaren Historia*. CD-ROMetan argitaratua.

### **3. Baserrien zerrenda: egoera eta babes-maila**

<b>Baserria</b>	<b>Kontserbazio-egoera</b>	<b>Babes-maila</b>
1. Agote Goikoa	Ona.	Ez dago babestuta.
2. Akertza	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
3. Akertza Berri	Erorita. Erre egin zen eta orain hormak erdizka kontserbatzen dira.	Ez dago babestuta.
4. Aranberri Behekoa	Ona.	Ez dago babestuta.
5. Aranberri Goikoa	Suntsituta. Bota egin zuten.	Ez zegoen babestuta.
6. Aritzaga	Ona.	Balizko arkeologia eremu izendatuta dago.
7. Arroako Ola	Suntsituta. Autopista egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
8. Artzubia	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten	Ez zegoen babestuta.
9. Bein	Erortzen.	Ez dago babestuta.
10. Etxe txiki	Erorita.	Ez zegoen babestuta.
11. Galtzaga	Ona.	Ez dago babestuta.
12. Goardi Berri	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
13. Goardi Zahar	Ona.	Ez dago babestuta.
14. Juan Domingoenea	Ona.	Ez dago babestuta. Nahiz eta eraikitako ondare gisa katalogatuta dagoen (58. Fitxa).
15. Katzaola	Ona.	Ez dago babestuta.
16. Lokatza	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
17. Lopene	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
18. Mardu	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
19. Maizelai	Nahiko zahar kitua.	Ez dago babestuta.
20. Mulundo	Erorita.	Ez zegoen babestuta.
21. Ola	Suntsituta. Bonbas Azkue enpresa egiteko bota zuten.	Ez zegoen babestuta.
22. Olaberri	Ona.	Ez dago babestuta.
23. Sakonberri	Ona.	Ez dago babestuta.
24. Txindurri	Ona.	Ez dago babestuta.
25. Zelaikoa	Ona.	Balizko arkeologia eremu gisa izendatua.

## **4. Analisia**

### **4.1. Baserria**

#### ***4.1.1. Jabetza***

Jabetzari erreparatuz gero, oro har, esan daiteke Arroa Behea inguruko baserri gehienetan maizterrak zirela. Hala, baserri eta lurren jabe nagusiak Zarauzko Dukea, Uriartetarrak eta Tellendi teila fabrikako jabeak (*Echaide y Compañía*) ziren. Esate baterako, Zarauzko Dukea Arroako Ola eta Aritzagaren jabea zen. Uriartetarrak, ostera, Agote Goikoa, Bein, Goardi Berri, Goardi Zahar eta beste hainbaten jabea. *Echaide y Compañía*, aldiz, Aranberri Goikoa, Artubia, Lopene eta Marduren jabea zen, adibidez.

Errenta ordaintzeko modu ezberdinak zituzten. Dirutan edo espeziatan ordaintzen zien jabeari. Hots, Zarauzko Dukeari garia eman behar izaten zioten. *Echaide y Compañía*-ri, berriz, dirutan ordaintzen zioten, nahiz eta kapoi batzuk ere ematen zizkioten urtero.

Halaber, esan behar da, XX. mendearen azken hamarkadetan baserria erosteko aukera izan zutela. Horren adibide dira, Arroako Ola (ezkerreko etxebizitza), Aritzaga, Agote Goikoa, etab. Bestetik, esan behar da etxe asko autopista edo poligono industrialia tarteko bota egin zituztela, eta baserri horietako jabeek zein maizterrek eremu ez industrialean etxeak egiteko aukera izan zutela. Hala, lehen maizterrak zirenak jabe izatera igaro ziren.

Aitzitik, esan beharra dago baserriar batzuk euren baserriaren jabe zirela hasieratik. Horren adibide dira Katzaola, Ola eta Lokatza.

#### ***4.1.2. Baserrien kokapena eta lurrak***

Lehenik eta behin, baserrien kokapena eta lurrak aztertzeko geografiari erreparatu behar diogu. Arroa Behea, izenak dioen moduan, erreka baten arroaren zati bat da, erdi-erdian Arroerreka erreka igarotzen delarik. Errekaren ondoko lurrak nahiko zabalak eta malda gutxiko eremuak dira. Hain zuzen, horiexek dira nekazaritzarako lurrik egokienak. Beraz, errekaren alboan eta inguruko eremu zabalean

baserri asko kokatzen ziren/dira. Esate baterako, Arroako Ola, Akertza, Lopene, Lokatza, Mardu, Goardi Berri, Goardi Zahar eta Ola.

Halaber, errekaen bi albo banatan mendi tontor baxuak daude. Horien gainak ere egokiak dira nekazaritzarako, aldapa gutxiko eremuak baitira. Hala, gainetan edo gainetara bidean honako baserri hauek kokatzen ziren/dira: Aritzaga, Galtzaga, Juandomingoenea, Zelaikoa, Maizelai, Artzubia, Agote Goikoa eta Bein.

Aitzitik, bazeuden/badaude leku aldapatsuan edo erreka zuloetan kokatutako baserriak, hona hemen batzuk: Olaberri, Txindurri, Mulundo, Aranberri Goikoa, Aranberri Behekoa, Sakonberri eta Katzaola.

Lurrei dagokionez, baserri bakoitzak erabiltzen zituen lurak anitzak ziren. Izan ere, baserriaren ekoizpena dibertsifikatua zenez, lur eremu bakoitzean jarduera ezberdinak gauzatzen ziren. Batetik, soroak zituzten. Oro har, soroak nahiko lauak izaten ziren, goldatzeko aproposak izan zitezten. Hala, labore ezberdinak egiten zituzten bertan: garia, artoa, baba, baba beltza, etab. Baserriaren inguruan baratza koskorra ere izaten zuten.

Bestetik, zelaiak zituzten, bertatik abereentzako belarra jasotzen zutelarik. Horrez gain, mendian ere lurak izaten zituzten, mendiko baliabideak beharrezkoak baitziren baserriarentzat. Hala nola, menditik azpigarritarako garoa, kertenak egiteko egurra, sutarako egurra... ekartzen zen.

Bestalde, leku aldapatsuagoetan sagastiak izaten zituzten. Modu horretan, jateko edo etxeko sagardoa egiteko nahikoa sagar izaten zuten. Hala ere, sagastietako sagarrak batzeaz gain, bertako belarra animalien bazkarako zein inausitako adarrak su-egurretarako ere aprobetxatzen zituzten.

#### 4.2. Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak

Jakina da baserrietan ekoizpena dibertsifikatua zela. Ondorioz, baserrietan jarduera ekonomiko ezberdinak burutzen ziren, baliabideen ustiapen eraginkorra gauzatuz. Beraz, jarduera ekonomiko ezberdinak banan-banan aztertu ditzagun.

#### 4.2.1. Nekazaritza

Jarduera ekonomiko hau gehiena soroetan egiten zen. Izan ere, baratza koskorrak izaten ziren. Soroetatik etxekoentzako elikagaiak lortzen ziren, pertsonentzako zein animalientzako. Lehen aipatu bezala, labore asko egiten ziren. Batetik, garia. Garia historikoki garrantzia handiko laborea da, izan ere, duela hamar mila urte ingurutik egiten da. Hala ere, Ameriketatik artoa eta baba iritsi zirenean haren garrantzia murriztu egin zen apur bat eta gaur egunean Euskal Herri atlantiarrean ez da egiten edo oso gutxi egiten da. Arroa Behea inguruko baserriak ez dira salbuespena. Aitzitik, duela hamarkada batzuk arte bertako baserrietan garia egiten zen. 60ko hamarkada bueltan, ordea, garia egiteari utzi zitzaion, baserri batzuetan lehenago eta besteetan beranduago. Aipagarria da, garia egiteari utzi eta gerora, Katzaola baserrian garia egiten zutela, inguruko baserriarrak elkartuta<sup>4</sup>.

Garia egiteak lan handia du. Hori da elkarrizketatu gehienek diotena. Behin lurra preparatuta eta purran-purran ereinda (azaroa bueltan), lana ez da hor amaitzen. Izan ere, garia neguan zehar jorratu behar izaten zen, tarteko belarrak kentzeko. Aitzitik, gari tartean oloa irteten zen eta hasieran ez ziren bereizten. Beraz, kontuz ibili behar izaten zen. Gari jorrarako aitzur estu eta kirten luzeak erabiltzen ziren.

Gero, udan garia ebaki behar izaten zen, normalean abuztuan. Hala ere, aipagarria da Arroako Olan San Pedrotan (ekainak 29an) garia ebakitzen zutela, segidan artoa eta baba ereiteko<sup>5</sup>. Nahiz eta artoa eta baba nekezago etorri, modu horretan, urtean bi uzta lortzen zituzten leku berean. Garia ebakitzeko idi edo behi parearekin garia ebakitzeko segadora erabiltzen zuten. Horrela, soroko garia bueltan-bueltan mozten zen.

Behin garia ebakita, lastaiak edo garikoak egiten ziren. Hau da, gariarekin egindako txortak. Horiek garia berarekin lotzen ziren eta korapiloa egiteko egurrezko tresna aproposa erabiltzen zen. Lastaiak edo garikoak tenteka pilatuta jarri eta lehortzen uzten ziren. Gero, baserri batzuetan meta handiagoak egiten zituzten. Horretarako lastaiak edo garikoak gari-buruak barrurantz zituztela bata bestearen gainean bueltan-

---

<sup>4</sup> Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>5</sup> Milagros Urbieto Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

bueltan ipintzen ziren, meta osatuz<sup>6</sup>. Modu horretan, euria eginez gero, ura kanpoko aldetik joaten zen. Denbora batez uzten ziren ondo lehortzen.

Ondoren, gari-jotzeari ekiten zitzaion. Horretarako lastaiak edo garikoak matxakan pasatzen ziren eta alea garbitzeko tornua erabiltzen zen. Hala ere, gero *trilladora*-rekin Antxieta ibiltzen zen baserriz baserri<sup>7</sup>. Horrek lanak errazten zituen, garia alde batera eta lastoa bestera botatzen baitzuen.

Gariaz gain, artoa eta baba ere egiten ziren, biak batera. Horiek maiatza erdialderako erein behar izaten ziren. Udan zehar, ordea, jorratu behar izaten zen, belarrak kendu eta lurra harrotzeko. Hala, irailean jasotzen zen. Alta, arta-lorea abereentzat mozten zen soroan berdetan zegoen bitartean. Aipagarria da, arto eta baba tartean kalabazak eta erremolatzak ere ereiten zirela. Nahiz eta azken hori bera bakarrik ere ereiten zen.

Bestetik, arbia egiten zen, arbi frantsesa edo/eta arbi zuria. Arbia irailaren aurrenean ereiten zen, baserri batzuetan patata egondako lekuan, lur harro-harroa uzten baitzuen. Jaso, ostera, ez zen dena batera jasotzen, neguan zehar sorotik bertatik behar zena atera eta abereei ematen zitzaien zuzenean. Gutxi gora-behera otsailera arte irauten zuen. Azpimarragarria da, Nabarnizko arbia famatua zenez, baserritar batzuk bertatik ekartzen zituztela haziak. Lerro batzuk gorago aipatutako patata ere baserri denetan egiten zen.

Beste labore garrantzitsua baba beltza zen. Hori ere neguko laborea dugu. Ondorioz, azaroan ereiten zen eta jaso, berriz, behin lehortuta zegoenean, hau da, udaran, uztaila bueltan. Behin baba beltza jasota, baba-jotzea egiten zen. Horretarako, hasieran, Urki Haundiko makina erabiltzen zen eta ondoren Akertzakoa<sup>8</sup>. Horiek etxez etxe ibiltzen ziren. Aitzitik, aipagarria da Katzaolan ez zutela baba-jotzea egiten, bertan belar ondoa bezala ganbaran osorik gordetzen zutela, gero abereei sustar eta guzti emateko<sup>9</sup>.

---

<sup>6</sup> Milagros Urbietta Illarramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>7</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbietta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua). Milagros Urbietta Illarramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>8</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbietta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>9</sup> Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).



Bestalde, belar mota ezberdinak egiten ziren animalientzat: pagotxa, allubria eta alpapa. Horien artean, pagotxa oso preziatua zen, abereentzat belar onena baitzen. Gauzak horrela, San Telmo egun bueltan ebakitzen zen, nahiz eta hazitarako zati bat laga<sup>10</sup>. Horrez gain, arta-berdea eta belar ondo ere egiten ziren. Lehenengoa, purran-purran ereiten zen (artoa babarekin ereiten zenean, aldiz, ilaratan) eta udaran zuzenean abereei ematen zitzaion. Bigarrena, berriz, belarra udan ondu eta negurako gordetzen zen. Gainera, apirila-maiatzatik iraila bitartean *ganajatekoak* egiten ziren, hau da, egunero belar berdea moztu eta abereei ematen zitzaion<sup>11</sup>.

Soroetz gain, baratzeke laboreak ere egiten ziren, nahiz eta baratza koskorrak izan. Bertan, azak, azelgak, tipulak, bainak eta porruak egiten ziren. Gerora, ordea, piperrak, tomateak eta beste hainbat labore egiten hasi ziren. Elkarrizketatu batzuk diotenaren arabera, Azpeitiko azokara joaten hasi zirenean hasi ziren labore horiekin, bertatik landareak ekartzen baitzituzten.

Labore horiek guztiak egin ahal izateko, lehenik eta behin lurra ongarritu eta preparatu behar izaten zen. Ongarritzeko simaurra erabiltzen zen eta neguko lana zen hori. Lurra preparatzeko, aldiz, lanabes ezberdinak erabiltzen ziren. Lehenengo gramana pasatzen zen, belarrak eta kentzeko, gero goldea eta area. Lan horiek labore guztientzat egiten ziren. Patataren kasuan, txarrana ere pasatzen zen, ilarak egiteko zein patata ateratzeko<sup>12</sup>. Bestetik, labore batzuen haziak ereiten zirenean alperra pasatzen zen, esate baterako, arbia erein ostean.

Horrez aparte, uzta jaso osteko lana ere egin behar izaten ziren. Adibidez, lehen aipatutako gari- eta baba-jotzea. Lan horiek egiteko inguruko baserritarrak elkartzen ziren, 20 bat lagunetik gora. Hala, behin lana eginda bazkaria edo merienda izaten zuten. Horrela, baserriz baseri ibiltzen ziren. Arto-zuritzen ere auzokoak elkartzen ziren. Lan hori ganbaran egiten zen eta zuritutako artaburuak ganbailara eramaten ziren. Nabarmendu beharra dago, emakume batzuk etxez etxe arto-zuritzen jarduten zirela, trukean sos batzuk lortzeko<sup>13</sup>. Ondorioz, jakina da baserritarren artean hartu-eman handia zegoela. Baita kaletarrekin ere, izan ere, Espainiatik jende asko etorri zen bertara

---

<sup>10</sup> Milagros Urbietta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>11</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>12</sup> Mari Karmen Eizagirre Urrestilla, Itziar, 2021eko martxoaren 29an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>13</sup> Milagros Urbietta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

lanera eta sarri baserrietara lanak egiten laguntzera joaten ziren, trukean elikagaiak ematen zizkietelarik. Beraz, hartu-eman eta elkarlaguntza handia zegoen garai hartako bizimoduan.

Bestalde, artoa eta garia irintzera eramaten zen, baina Arroa Behean bertan ez zegoen errotarik. Ondorioz, artoa Narrondoko errotara eta Alberdinerara eramaten zuten irintzera. Garia, ostera, askok Azpeitiako Goiko errotara, izan ere, finago irindu behar izaten zen<sup>14</sup>.

#### 4.2.2. Abeltzaintza

Baserrietan, oro har, behiak euren txahalekin, txerri bat edo bi eta oiloak izaten zituzten. Behiei dagokionez, baserriak ematen zuen haina izaten zituzten, etxeke bazkarekin elikatzen baitzituzten. Hala, baserri gehienetan 4-6 behi izaten zituzten euren txahalekin. Aitzitik, baserri batzuetan gehiago izaten zituzten, esate baterako, Aritzagan<sup>15</sup> 8-10 behi eta Mardun<sup>16</sup> 11.

Bestetik, urtero txerri bat edo bi hazten ziren. Lehen esaten zen bi txerri batera haziz gero hobeto hazten zirela<sup>17</sup>, baina baserri gehienetan bakarra hazten zen. Hala ere, urte batzuetan bi ere hazten zituzten. Oiloak ere baserrietan garrantzitsuak ziren. Hala, dozena bat edo bi izaten ziren baserri bakoitzean. Esan beharra dago, txitak etxean ateratzen zirela. Beraz, oilaskoak azokan edo kalean saltzen ziren eta etxean, berriz, oiloa jan<sup>18</sup>. Gainera, urtero kapoiak egiten ziren, hau da, irendutako oilaskoak. Adierazgarria da oiloak baserri askotan aparte zegoen txabola batean izaten zirela.

Aipatutako animaliez gain, baserri batzuetan untxiak izaten zituzten, esate baterako, Mardun eta Goardi Berrin. Nahiz eta ohikoa ez izan, beste baserri batzuetan ardiak izaten zituzten. Adibidez, Arroako Olan eta Aritzagan<sup>19</sup>.

---

<sup>14</sup> Milagros Urbieta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>15</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>16</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>17</sup> Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>18</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>19</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Milagros Urbieta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

Bestalde, lanerako animaliak ere izaten ziren. Baserri guztietan astoa izaten zuten, garraio-lan ugari egiten zituena. Hala nola, kalera elikagaiak saltzera eramateko astoa erabiltzen zen. Astoaz gain, baserri batzuetan idi-parea eta beste batzuetan behi-parea erabiltzen ziren uztarran. Horiek lan asko egiten zituzten: lurra preparatzeko ittulan, gurdiarekin garraio-lanak, etab. Horiek izaten ziren lanerako animalia ohikoenak, baina batzuetan zaldia edo mandoa ere izaten zen, hots, Aritzagan zaldia izan zuten eta Mardun eta Olaberrin, berriz, mandoa<sup>20</sup>.

Horiek guztiak mantentzeko lan asko egin behar izaten zen. Batetik, udaran aipatutako *ganajatekoak* egiten ziren egunero. Bestetik, udaran abereak larrera ateratzen ziren. Garai hartan itxiturarik ez zenez izaten, “ganau” zaintzen egon behar izaten zen. Horretan normalean ume-koskorrak egoten ziren. Gainera, erre kara ura edatera ere eramane behar izaten ziren, izan ere, lehen etxeetan herriko urik ez zegoen.

Bestalde, abereek azpigarriak behar izaten zituzten. Hau da, ohe modukoa preparatzen zitzaien, normalean garoarekin, eta egunero azpiak ateratzen ziren, hots, simaurra, zeinak lurra ongarritzeko erabiltzen zen.

#### 4.2.3. *Frutagintza eta sagardogintza*

Argi dago Euskal Herri atlantiarrean sagarra izan dela eta dela fruta nagusia edo garrantzitsuena. Dokumentuek ere hala diote. Begiratu besterik ez dago Elizetara ematen ziren dohaintzak edo Foruetan agertzen diren sagarrondo, sagasti eta sagardoaren inguruko legeak (Uria, 1978: 13-14). Hori horrela, Arroa Behea inguruan ere sagarrondo eta sagastiak dira nagusi. Lehen aipatu bezala, horien kokapena leku aldapsuetan edo nekazaritzarako egokiak ez ziren lekuetan izaten zen, adibidez, erreka bazterrean. Hala ere, etxe bueltan ere sagarrondo solte batzuk izaten ziren.

Sagar motei dagokionez, bi multzo handietan banatzen dira sagarrak: jan-sagarrak eta sagardo-sagarrak. Hala ere, jan-sagarrak sagardotarako ere erabiltzen ziren. Arroa Behea inguruko baserrietan sagar mota hauek izaten ziren: barragorria edo Karmen sagarra, San Inazio sagarra, San Juan Sagarra, San Pedro sagarra, Libra sagarra, Kanpandoja, Errege sagarra, Aitza sagarra, Aizarna sagarra, Aldamarra, Aritzagako sagar zuria, Txalaka, Donosti sagarra, Urdin sagarra, Lau Kantoia, Errege sagar gorria,

---

<sup>20</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

Txorten luzea, Moliua, Merkamiña, Peasa, Sagardo sagar gorria, Gazi Haundia, Geza gorria, Gorritxua, Perretxiko sagarra, Mutur zabala, Txorisagarra, Sagarbasusta, Urtebia, Urtebetea, etab.

Hori horrela, sagardoa baserri guztietan egiten zen. Horretarako hainbat lan egiten ziren. Garrantzitsuena sagar-biltzea izaten zen. Etxeko guztiak elkartzen ziren horretarako, otarrak bete, saldu behar bazen neurriarekin neurtu eta zakuetan gordetzen ziren, horiek zumearekin lotzen zirelarik. Gero, baserrira eramaten ziren. Baserri askotan tolarea izaten zen, nahiz eta txikia izan: Aritzagan, Juandomingoenean, Zelaikoan, Katzaolan, Mardun, Txindurrin... Beraz, tolarea ez zuten baserrietatik auzokoarena eramaten zen. Hala ere, Oliden-Txikin tolare handi-samarra zegoen eta askok bertara eramaten zuten. Behin baserrira eramanda, matxakan pasatu eta patsa tolarean zanpatzen zen, muztioa ateratzeko. Gero, muztioa barriketan edo bukoietan gordetzen zen, bertan irakin zezan<sup>21</sup>.

Etxeko sagardoa eguneroko edaria zen. Izan ere, ardoa oso gutxi erosten zen, batez ere, egoera ekonomikoa ona zenean, hau da, ardoa erosi ahal izateko sos batzuk zeudenean. Beraz, sagardoaren garrantzia handia da.

Sagarraz gain, ordea, bestelako fruta-arbolak ere izaten ziren baserrietan, normalean etxe bueltan. Hala nola, pikondoak, txermen-ondoak, aranondoak, mizpirak, intxaurrondoak eta gereziendoak. Beraz, baserrietan ez zen fruta faltarik izaten.

#### *4.2.4. Elikagaien eta hazien kontserbazioa*

Kontserbazioaz mintzatu aurretik, kontuan hartu behar dugu garai hartan hozkailurik ez zegoela, ezta izozkailurik ere. Beraz, elikagaiak kontserbatzea ez zen hain erraza. Batetik, gatzetan kontserbatzen zen haragia. Horretarako, kutxetan gatza eta haragia tartekatuta jartzen zen, lehenengo eta azken kapak gatzarenak zirelarik. Eta azkenik, gainean pisua ipintzen zitzaion, harri bat edo zerbait pisutsua. Horri astean behin buelta eman behar izaten zitzaion eta gatza aldatu<sup>22</sup>. Horrela, txerrikiak (saihetsa, urdaiazpikoa, hirugiharra...), behi okela (ezbeharren batez hilez gero) eta ardi-haragia

---

<sup>21</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>22</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

kontserbatzen ziren. Gatzetan kontserbatutako ardi eta behi haragiari zezeña esaten zitzaion.

Horri lotuta, esan behar da normalean ez zela abererik hiltzen, soilik ezbeharren bat gertatuz gero. Hala, kontserbatzeko haragi asko zenez, beste baserrien artean banatzen zen. Horri terrama esaten zitzaion<sup>23</sup>. Izan ere, terraman baserri multzo batzuk zeuden eta horietako batean abereren bat hiltzen bazen baserri horien artean banatzen zen, haragia ez galtzeko. Aberea hil zen baserrikoei trukean zerbait ematen zitzaien.

Frutari dagokionez, negurako izateko ganbaran edo ganbailan gordetzen ziren, bertan haizea sartzen zenez hezetasun gutxiago izaten zelako. Hala, ximel-ximel eginda neguan mantentzen ziren. Esate baterako, mispirak, txermenak eta sagarrak. Sagarretan eta txermenetan esan behar da, klasearekin jolasten zela, izan ere, batzuk besteak baino beranduago etortzen ziren edo/eta kontserbatzeko hobeak ziren. Aipagarria da sagarrak belar ondota ere gordetzen zituztela, hezetasun gutxiago izateko.

Barazkietan, esan behar da ez zirela asko kontserbatzen, garaian garaikoa jaten zela. Hala ere, tomatea egin eta botilatu egiten zen. Horretarako, ordea, “papeletak” erabiltzen zituzten, hauts batzuk<sup>24</sup>. Hala, botiletan sartu eta hautsekin kontserbatzen ziren. Baina gerora esan zuten hauts horiek ez zirela onak eta orduan “baño marian” egiten hasi ziren.

Animalien bazkaren kontserbazioari erreparatuz gero, batetik, belarra ondu egiten zen eta gero, zuhatza egin edo ganbaran gorde. Garoarekin, berriz, zuhatzak egiten ziren, etxe inguruan edo mendian bertan. Bestetik, soroetatik jasotako uzta ganbaran gordetzen zen: erremolatxa, patata, artoa, baba beltza, baba...

Azkenik, hazien kontserbazioari heldu behar diogu. Hazi gehienak lehortuta kontserbatzen ziren. Batzuen lorea moztu eta txintxilika lehortzen uzten zen, hots, tipula, azelga eta erremolatxa. Beste batzuen kasuan, alea bera gordetzen zen. Artoaren, babaren, baba beltzaren eta bainaren kasuan, adibidez. Arbiaren kasuan, berriz, zailagoa

---

<sup>23</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>24</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Mari Karmen Eizagirre Urrestilla, Itziar, 2021eko martxoaren 29an (grabagailuz dokumentatua).

zen. Izan ere, soroko landareak ez zuen balio, lekualdatu egin behar izaten zen. Behin lehortzen zenean jaso eta izara batean eguzkitan uzten zen, hazia ateratzeko<sup>25</sup>.

#### 4.3. Ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa: salmenta

Gehien saltzen zen elikagaia esnea zen. Izan ere, baserri askotatik egunero Zumaiara astoarekin joaten ziren esnea saltzera. Hala, kaleetan zeuden argoietan astoa lotu eta esnea banatzen zuten etxez etxe. Itzuleran, ostera, olio, gatza eta azukrea erosten zuten etxerako.

Beste baserri batzuetan, berriz, ez ziren Zumaiara saltzera jaisten, kaletarrak joaten baitziren esne bila baserrira. Hori horrela, kalera jaisten zenak egiten zizkieten enkarguak. Esate baterako, Sakonberriko Arantxa joaten zen egunero Zumaiara zaldia karroarekin hartuta, eta inguruko etxeetan bizi zirenei enkarguak egiten zizkien<sup>26</sup>: botikak ekarri, gibela erosi baten bat gaixorik egotekotan, umeek batutako mantzanilla saldu, etab.

Esneaz gain, arrautzak, oilasko pareak (bizirik) eta sagarrak ere saltzen zituzten, kalean zein baserrian bertan. Sagarren kasuan, kalean saltzeaz gain, sagar-zaleak baserrietara joaten ziren sagardotegietarako sagarrak eroatera<sup>27</sup>.

Gero, ordea, gauzak aldatu ziren. Esnea kalean saltzeari utzi zitzaion, *letxeruak* baserriz baserri esnea erosten hasi baitziren. Ondorioz, ez ziren kalera saltzera joaten egunero. Aitzitik, Urolako trenean, astean behin (asteartetan) Azpeitiko plazara joaten ziren oilaskoak, untxiak, arrautzak eta zutena saltzera. Hori guztiaz gain, etxean hazitako txahalak ere saltzen ziren harategietara<sup>28</sup>.

Bestalde, aipagarria da, zumeak zituzten baserriek (Aritzagak eta Arroako Olak, adibidez) Getariara saltzen zituztela, otarrak egiteko zein mahatsa lotzeko.

---

<sup>25</sup> Mari Karmen Eizagirre Urrestilla, Itziar, 2021eko martxoaren 29an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>26</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>27</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>28</sup> Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

#### 4.4. Kanpoko hornikuntza

Nahiz eta baserriaren autosufizientzia maila altua izan, beharrezkoa zuen kanpo hornikuntza.

##### *4.4.1. Ura*

Garai hartan, normalean, etxean ez zen urik izaten. Ondorioz, errekarra edo iturrietara joan behar izaten ziren ur bila. Esan beharra dago ur askoko eremua dela, Arroaerreka erreka nagusiaz gain beste hainbat txiki zeuden eta: Txindurrierreka, Aranberrierreka, Katzaolaerreka, Agoteko erreka, etab. Beraz, baldeekin, usurarekin edo barriekin errekatik ura hartzen zuten. Horrez aparte, errekarra eramaten zituzten animaliak ura edatera.

Gainera, iturri dezente zeuden. Batetik, Landeta gainak bildutako urak lau iturritara joaten dira: Txindurriko iturrira, Maizelaiko iturrira, Olaberriko iturrira eta Aritzagako iturrira. Beraz, Landeta gainean ur-poltsa ederra dagoela dirudi. Hala ere, lehorte handienetan Txindurriko iturrira soilik iristen zen ura.

Iturri horietan metal-ura zegoen/dago eta inguruko baserrietatik bertara joaten ziren ur bila usurarekin, tuntuxa edo dena delakoarekin. Txindurriko iturrira Lopene, Lokatza, Mardu, Artzubia, Aranberri Behekoa, Aranberri Goikoa baserrietatik eta beste hainbat etxetatik joaten ziren. Aritzagako iturrira, berriz, Aritzagatik, Galtzagatik, Juandomingoeneatik eta Zelaikotik joaten ziren. Olaberriko eta Maizelaiko iturrietara, aldiz, bertakoak joaten ziren.

Bestetik, Ezkaiztoko urak ere bere iturriak zituen Arroa Behea aldean, bi hain zuzen ere. Bat Sansinenean zegoen, gaur egun Azpeitia aldeko autobus geltokia dagoen bueltan, eta bestea, berriz, Keixeta parean<sup>29</sup>. Iturri horiek, ordea, zekarten ura ez zen metal-ura.

Bestalde, Arroako Ola eta Teleintxeberri artean ere bazegoen iturria, Lizarretako iturria, eta bertako ura herriko ura zen<sup>30</sup>. Handik gertu, Oliden Txikiko iturria zegoen, bertatik, ordea, metal-ura ateratzen zen/da. Denborarekin, herriko ura baserri denetan jarri zuten. Baina aurretik etxe batzuetan teilatuko urarekin edo errekatik bonba batekin

---

<sup>29</sup> Primi Garate Urbietta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 13an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>30</sup> Milagros Urbietta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).



ura etxera eramán zuten. Esate baterako, Aritzagan 1951n bosabera egin zuten, uraska eta guzti. Hala, teilatuko ura jasotzen zuten eta hainbat lan egiteko erabili, adibidez, arropak garbitzeko. Gainera, gerora, Aritzagako iturriko ura bonba bidez baserriraino igo zuten, gaur egun ere horrela dago<sup>31</sup>.

#### 4.4.2. Egurra

Orokorrean, baserri guztiek zuten mendian lur zati bat. Ondorioz, behar zuten egurra handik hartzen zuten. Su-egurrari dagokionez, ahal zuten guztia aprobetxatzen zuten: frutarbolei inausitako adarrak, oholak eginez gero geratzen zen laka, otearen egurra, zotz txikiak, altzak, etab. Dena aprobetxatzen zen, izan ere, garai hartan sutarako ez ziren egur handiak erretzen, soberakinak baizik.

Kirtenak egiteko ere etxeko lurretako egurra erabiltzen zen. Normalean, urritzarekin edo lizarrarekin egiten ziren kirtenak. Berez, urritza erabiltzen da horretarako baina inguru hauetan ez zegoen horrenbeste eta lizarra erabiltzen zen. Aitzitik, baserriko lurretan ez bazegoen horretarako egur aproposik, ingurukoren bati eskatzen zitzaion baimena, tratua eginez. Horrez gain, libre antzera zeuden lurak ere bazeuden, erreka zuloren bat edo, eta horietatik ere hartzen zen. Gainontzeko egurrekin ere berdín.

Bestalde, oholak ahal izanez gero haritzarekin egiten ziren. Normalean zerrategira eramaten zen haritz-egurra, bertan zerratu eta etxera eramaten zen idiparearekin<sup>32</sup>. Hala ere, etxean arpanarekin egingo zuenik ere izango zen. Oholak teiltaturako lata ipintzeko edo ganbara, mandategi edo ganbaileko zorua egiteko erabiltzen ziren. Baserrietan beti izaten ziren erreserban, oholen bat hautsiz gero momentuan aldatzeko edo konpontzeko.

Arkazia, ostera, eskuare hortzak, gurdiak, egurrezko eskilaren mailak... egiteko erabiltzen zen, egur gogorra baita. Altza, berriz, inguruan asko zegoenez edozertarako erabiltzen zen, nahiz eta egur makala izan. Hala nola, untxientzako tokiak egiteko, gurdietako gailurra egiteko, edozertarako. Pagoari dagokionez, uztarriak egiteko erabiltzen zen. Horretarako pago-egurra pitzatu eta uretan uzten zen, bigun

---

<sup>31</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>32</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

mantentzeko. Hala, idi-parez edo behi-parez aldatzerakoan edo uztarria apurtzerakoan berria egiteko uztarrigileari deitzen zitzaion. Inguruko uztarrigileak Presalde, Zarautzeko Sola eta Azpeitiko Etxeberri ziren. Uztarrigilea etxera etortzen zenean, jan-edanak ematen zitzaizkion, uztarria egitea amaitu arte. Oro har, egun batean egiten zuten<sup>33</sup>.

Bestalde, urritz-makilak edo akuluak egiteko, urritza behar izaten zen. Gero eta altitude handiagoko urritza izan, orduan eta hobeak izaten ziren. Gainera, Arroa Behea inguruan urritz gutxi zegoen. Beraz, Izarraitzera edo Agirora joaten ziren urritz bila eta besakada bat urritzekin itzultzen ziren. Behin etxera itzulita, ganbailan lehortzen uzten ziren, elkarrekin lotu eta txintxilika ipiniz azpian zama jarrita.

Kontuan hartu behar da egur bakoitza bere garaian bota behar izaten dela. Jexuxek esandakoaren arabera<sup>34</sup>, arkazia neguko ilberrian edo ilbeheran botatzen da eta behin botata bertan lagatzen da hamar bat urtez apur bat estalita. Modu horretan, egurrari bizioak kentzen zaizkio. Altza, berriz, maiatzeko ilberrian botatzen da eta gehiago irauteko azala kendu behar izaten zaio. Urritzak, ostera, azaroko ilberrian bota behar izaten dira makiletarako. Eta haritzak neguko ilbeheran botatzen dira. Gainontzekoak normalean neguko ilbeheran botatzen dira.

Azkenik, esan behar da baserri batzuetatik egurra ere saltzen zela. Lehen aipatu bezala, zumeak Getariara saltzen ziren, mahatsa lotzeko eta otarrak egiteko. Horrez gain, egur asko zuten baserrietatik denetarik saltzen zen. Esate baterako, Olaberrikoek lizarra eta pagoa kirtenetarako eta urkiak txotzak (gaztelerazko *palillo*) egiteko saltzen zuten, ikaragarri<sup>35</sup>.

#### 4.4.3. *Metalezko eta zeramikazko elementuak*

Oro har, metalezko zein zeramikazko (lurrezko) elementuak etxez etxe saltzen ibiltzen zirenei erosten zizkieten. Metalari dagokionez, batez ere, lanerako tresnak edo tresnen zatiak izaten ziren, aitzurrak, aizkorak eta arearen hortzak, adibidez. Bestetik, zeramikazko elementuei dagokionez, lurrezko ontziak, tuntuxa eta horrelako elementuak erosten ziren.

---

<sup>33</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>34</sup> Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>35</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

Hala ere, aipagarria da 1900. urtetik Arroa Behean *Echaide y Compañia* teila fabrika zegoela (Bravo *et al.*, 1999: 22). Hala, bertan teilak eta adreiluak ekoizten ziren. Beraz, adreiluak edo teilak behar bazituzten bertatik erosiko zituzten, seguruenik. Gainera, kontuan hartu behar da baserriar askok bertan egiten zutela lan. Izan ere, baserriarekin seme-alaba zaharrena geratzen zen (normalean gizona) eta hura baserritik bizitzen zen (nahiz eta batzuetan hura ere lanera kanpora joaten zen). Aitzitik, gainontzeko senideak baserrian lan egiteaz gain kanpoan ere lana egiten zuten. Aipagarria da, egiten zuten lanetako bat garraio-lana zela: adreiluak gurdian hartu eta estaziora eta Zumaiara eramatea eta bueltan ikatza ekartzea. Horrez gain, labe-erretzen ere ibiltzen ziren (Bravo *et al.*, 1999: 134,143).

#### 4.4.4. *Etxean ekoizten ez zen janaria*

Jakina da baserrietan ahal zuten guztia ekoizten saiatzen zirela, haien beharrianak asetzeko. Hala ere, elikagai batzuk kanpotik erosten zituzten. Egunerokotasunean gehien erosten zutena olioia, azukrea eta gatza ziren. Arroa Behean hiru denda zeuden: Olano-enekoa, Joxe Ramon-enekoa eta ekonomatua. Azken horretan, ordea, bertako langileek soilik eros zezaketen. Hala, baserriarrek Olano-eneko eta Joxe Ramon-eneko dendetatik edo Zumaiatik (bertara esnea saltzera joaten zirenek) erosten zuten. Horrez gain, igandetarako garbantzuak ere erosten zituzten, baita larunbaterako haragi fresko pixka bat ere (baserri batzuetan).

Arrainari dagokionez, Zumaiara joaten zirenek bertatik ekartzen zuten. Askotan esnearen truke marmita bete arrain ekartzen zuten<sup>36</sup>: bisiguak, txitxarroak... Bestetik, Arroa Behera bertara ere joaten ziren arraina saltzera. Esate baterako, antxoa sasoiari, Zumaiatik emakumeak zinkezko ontzia antxoaz beteta buru gainean zutela joaten ziren Arroa Behera saltzera. Horiei ere askok erosten zieten. Bestetik, Ondarroatik Juanita etortzen zen arraina saltzera<sup>37</sup>. Denetarik saltzen zuen: toia, katuarraia, zabalera, izurdea, etab. Garai hartan, arraina dezente jaten zuten.

Bestalde, etxez etxe mieleroak ere ibiltzen ziren bizikletaz bizkarrean kaxa batzuk jatekoz beteta eramanez. Haien ezia, gazta, txorizoak eta beste hainbat elikagai saltzen zituzten.

---

<sup>36</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>37</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

Edariei dagokionez, ardozalea ere joaten zen ardoa saltzera. Nahiz eta etxe guztietan etxe sagardoa edan, ardo apur bat ere erosten zuten. Hori, ordea, diru pixka bat zutenean, gerra osteko urte gogorrenetan ez zuten halakorik erosteko haina diru eta etxe sagardoarekin konformatu behar izaten ziren.

Halaber, Azpeitiko azokara joaten hasi zirenean, sardina zaharrak eta bakailao gazitua ere erosten zuten. Gerora, bestelako frutak ere erosten hasi ziren, barrua gorria zuten laranjak, esate baterako.

#### 4.4.5. Arropak eta haren garbiketa

Arropak, oro har, etxean egiten ziren, praka, gona, alkandora, jertse zein galtzerdi. Normalean, emakumeak egiten zuten lana izaten zen, jostea, puntua egitea eta gantxilloa egitea. Modu horretan, etxeontzat arropak egiten zituzten.

Horretarako, ordea, telak, hariak eta artilea behar izaten zuten. Telei dagokionez, Zumaiaetik Manolita joaten zen etxez etxe bere muestrarioarekin<sup>38</sup>. Hala, tela bakoitzetik hainbeste enkargatu eta handik egun batzuetara etxera eramaten zizkien, arropak josi ahal izateko. Bestetik, puntuzko jertseak ere egiten zituzten, nahiz eta jertse batzuk kanpoan erosten ziren. Horrez gain, artilezko galtzerdiak ere egiten zituzten, batez ere ardiak zituzten baserrietan. Adibidez, Aritzagan *txablia* erabiliz artiletik haria ateratzen zuten eta ondoren galtzerdiak egin<sup>39</sup>.

Arropen garbiketari dagokionez, hori ere emakumeek egiten zuten batik bat. Hainbat leku zeuden arropak garbitzeko. Batetik, Zubizaharren ondoan arropak garbitzeko harria zegoen eta inguruko etxeetako emakumeak bertan elkartzen ziren arropak garbitzeko. Handik gertu, Sakulupen ere bazegoen arropak garbitzeko lekua<sup>40</sup>. Bestetik, Aritzagako iturrian ere uraska zegoen arropak garbitzeko. Bertara Aritzagatik, Zelaikotik, Galtzagatik, Juandomingoenetik eta beste hainbat etxetatik joaten ziren arropak garbitzera. Arroako Ola aurrean ere uraska zegoen. Aitzitik, eurek normalean etxe arraskan garbitu eta errekan eragin eta urberritzen zituzten<sup>41</sup>. Izan ere, baziren

---

<sup>38</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>39</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>40</sup> Primi Garate Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 13an (grabagailuz dokumentatua).

<sup>41</sup> Milagros Urbieto Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).

etxean uraska zutenak eta bertan garbitzen zutenak. Hots, Lopenen uraska zegoen<sup>42</sup> eta bertan garbitzen zituzten arropak, nahiz eta Zubizaharrera ere joaten ziren batzuetan. Aritzagan, berriz, 1951n bosabera egin zutenean<sup>43</sup> uraska bat ere egin zuten eta etxean bertan garbitzen zituzten arropak.

Bestalde, arropa garbitzeko, oro har, txinbo jaboia eta lixiba erabiltzen zuten. Aitzitik, izarak garbitzeko sutako hautsa ere erabiltzen zuten etxe batzuetan, lehen arropak ere horrela garbitzen zirelarik. Horretarako zinkezko *barriñoian* beratzen jartzen ziren, ondoren, garbitu eta urberritu eta zelaietan uzten ziren lehortzen. Izan ere, eguzkiak gehiago zuritzen baitzituen<sup>44</sup>. Hala ere, ordurako sutako hautsa oso gutxi erabiltzen zen.

#### 4.5. Toponimia

Toponimiari dagokionez, elkarrizketetan baserri bakoitzaren lurren izenak biltzen saiatu naiz. Hala, ondorengo lekuen izen hauek aurkitu ditut:

- Aritzaga: Zoratxu, Goiko Mendiak, Beheko soroak, Iturraldeko soroa...
- Arroako Ola: Menditxo, Soro Zaharra, Pagoeta gaina, Sagastia, Aldapa, Baratza, Lizarretako soroa eta iturria, Albergako zelaia eta etxe azpikaldea.
- Katzaola: Larraña, Goiko zabala, Goiko gaina...
- Lopene: Kastainatxiki, Lurteia, Beheko Erribera, Artzuaia aldea, Aranberri aldea, Olasparru, Olaberri aldea, Pago gain...
- Mardu: Intzeleta, Basatxiki, Basatxiki gaina, Biola, Mulundo, Paskultzo, Soroluze, Sorozabal, Lokatzako soroa, Barruko gaina, Sakulupe, Barrutia, Aurreko barrutia, Akertza aldea...

Horietatik pare bat toponimo aipagarriak iruditu zaizkit. Izan ere, 1483an Debako kontzejuak Arroako (Arroa Goia, Arroa Behea, Arroaerreka, Endoia, Sastarrain, Olalde eta Baltzola aldea barne) lurren mugarriketa burutu zuen eta bertan, baserrien izenez gain, gaur egun mantentzen diren bi toponimo agertzen dira: Sorozarreta eta Bidaola (Azkune, 2016: 467-472) . Lehenengoa Akertza eta Gatzolaerreka inguruan

---

<sup>42</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbietak, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>43</sup> Angeles Egaña eta Joxe Urbietak, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).

<sup>44</sup> Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).

agertzen da, hain zuen, Arroako Olako soro bat Akertzako lurrekin mugan zegoen eta hari Soro Zaharra deitzen zioten. Beraz, leku bera izendatzen duela uste dut. Bigarrenari dagokionez, Artzuriagako Bidaolako sagastia, Bidaolako bidea eta Bidaolako gaztainadia eta lursaila agertzen dira. Hala, Mardu baserrikoek Artzubiako Biola erabiltzen zuten garotarako. Ondorioz, eremu berdinez ari zirela pentsa liteke, agian XV. mendean eremu zabalagoa zelarik.

Bestalde, landu ditudan Arroa Behea inguruko baserri askoren izenak XV. mendean zehar agertzen dira (Azkune, 2016: 712, 744-745, 754-756, 768-770): Akertza, Artzuriaga (Artzubi), Gatzaola (Katzaola), Marduan (Mardu), Agote, Arroako Ola, Areitzagagoiena (Aritzaga), Areitzagazelaikoa (Zelaikoa), Areitzaga Juandomingo (Juandomingoena)... Horiez gain, Arroaerreak eta Narrondo aldeko beste baserri askoren izenak ere agertzen dira.

## **5. Ondorioak: ondarearen kudeaketa eta etorkizunerako ikerketa bideak**

Behin hori guztia esanda, argi dago bizimodua zeharo aldatu dela eta horrekin batera gure ingurunea. Horren adierazle dugu Arroa Behean eraiki ziren autopista eta poligono industrialak. Aldi berean, hori eraikitzeke gauzatu zen baserrien suntsipena ere aldaketa horren froga dugu. Horrek baserriek zein baserriarren bizimoduari kolpe gogorra eman zion. Izan ere, poligono industrialak eta autopistak erdigunea hartu zuten eta baserriak multzokatuta bazterrean geratu ziren. Hala, elkarren arteko hartu-emanak ikaragarri murriztu zen, aurreko bizimodua gauzatzeko bideen suntsipena edo aldaketa tarteko. Beraz, indibidualismora bultzatu zituzten baserriarrak (gainontzeko gizarteko partaideak moduan) eta modu indibidualean baserria aurrera ateratzea oso zaila da, kolektibotasunean edo elkarlaguntzan oinarritzen baitzen bertako bizimodua.

Horri lotuta, Arroa Behea inguruan ondarearen kudeaketa egokia ez dela izan argi dago. Izan ere, zazpi bat baserri bota ziren eta horietatik asko oso zaharrak ziren, XV. mendeko dokumentuetan agertzen baitira. Ez soilik zaharrak izateagatik, herritar gehienek bizimoduaren adierazle ziren eraikuntza horiek eta haien balioa zuten, beraz, ondare ikuspuntutik ere aintzat hartu beharko lirateke. Hala ere, oraindik baserri zahar batzuk zutik daude eta horiek ondare aldetik ikertzea egokia litzateke, kudeaketa egokia aurrera eramateko, jakin, batzuk erortzen ari direla.

Bestalde, esan behar da, nik ikertzeko dagoenaren zati oso txiki bat ikertu dudala. Soilik XX. mendeko 30ko hamarkadatik 80ko hamarkadara bitarteko bizimodua ikertu dut eta horrekin batera bizimodu horiek gauzatzeko beharrezkoak ziren eraikuntza, lur eremu eta tresnak. Hau da, oraindik asko dago ikertzeko. Batetik, baserriei lotuta lan oso gutxi daude eta asko eraikuntza ikuspuntutik eginak dira, baserri osoa (lurrak, egitura auxiliarrak, etab. barne) kontuan hartu gabe. Are gutxiago bertako bizimodua, gauzaten zituzten lanak, nola lortzen zituzten eskura ez zituzten baliabideak... Bestetik, Arroa Behean ikerketa oso gutxi egin dira ikuspuntu historiko edo arkeologikotik. Beraz, interesgarria litzateke horrelako ikerketak egitea. Batez ere, ondarearen kudeaketa egokia izan dadin eta iraganeko elementu eta bizipenak ahanzturan erori ez daitezten.

Beraz, etorkizunerako honako ikerketa lerro hauek ikusten ditut: Arroa Behea inguruko toponimia, baserriaren gainbehera (nolakoa eta zergatik?), baserriekin zer egin?, baserrien jatorri historikoa, baserrietako lanak genero ikuspegitik ikertzea, etab.



## **Bibliografia**

- Azkune Mendia, I. (2016). *Zestoaren Historia (I)*. CD-ROMetan argitaratua.
- Azkune Mendia, I. (2016). *Zestoaren Historia (II)*. CD-ROMetan argitaratua.
- Berriochoa, P. (2010). Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan. *Leyçaur: Andoaingo ikerketa historikoaren aldizkaria*, 11.znbk, 113-232.
- Berriochoa, P. (2014). *Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bravo, R., Arzallus, F., Izaga, J.M., Urdangarin, C., Carballo, J., Manterola, I., Ossa, J. eta Gonzalez, I. (1999). *Arroa Behea, Auzo gazte baten historia*. Ezkaizto Arroa Beheko Auzo Elkarte.
- Uria, J. (1978). *Sagardoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

## **Agiritegiako dokumentuak**

- 1349-I-15/XII-15, Gibraltarko errege-kanpamentua. Gaztelako Alfontso XI.a erregearen gutuna. Lope Diaz Rojaskoari, Gipuzkoako merio nagusiari, Fernando Martinez Elorriagakoaren eta Debako Kontzejuaren arteko auziaren epaia bidali zion. Auzia itsasontzi eta galerak egiteko eta Arroako burdinolarako egur-ikatza egiteko erabiltzen ziren haritzei buruzkoa da. Valladolideko Kantzelaritzako Artxiboa, Pergaminoak bilduma, 38. Karpeta, 7.a.
- 1436, Deba. Itziar, Arroa eta Mendaroko lurretako biztanleek Debako Udalari ordaindu behar ziotenaren zerrenda. Debako Udal Artxiboa (DUA), 7. liburua, VIII. kartularioa, 1. agiria, 220a-227a orriak.
- 1458-XI-1/5, Deba. Debako Kontzejuak ahalordea eman zien hamabi diputaturi herri lurak mugarritu eta salmenta agiriak ezar zituzten. Kontzejuan egon ez ziren beste auzotar batzuek lau egun geroago Itziarren emandako ahalordea ere jaso zuen agiriak. DUA, 7. liburua, VIII. kartularioa, 1. agiria, 71i-75i orriak.
- 1465-XI-11, Deba (Andra Mariaren eliza). Debako hiribilduko Kontzejuak eta bertako lurraldeetako burdinolen nagusiek ituna sinatu zuten. Olagizonek Kontzejuko mendiak ustiatzeko baldintzak ezarri ziren. Besteak beste, Arroa, Iraeta, eta Liliko burdinoletako ordezkariak bildu ziren, orduan burdinola haiek Debako lurretan zeudelako. DUA, 14. Liburua, 39a-66i orriak.
- 1465-XI-26, Deba. Itziar, Lastur eta Arroako 49 auzotarrek onartu egin zuten beren etxe eta burdinolak Debako hiribilduaren lurretan zeudela, eta bertako pribilegioak eta ordenantzak betetzeko konpromisoa sinatu zuten. DUA, 1. Liburua, I. kartularioa, 8. Agiria, 76. Folia.
- 1497-VIII-30, Medina del Campo. Errege Katolikoek Diego Lopez Aiarakoa kapitain jeneralari eta Gipuzkoako korrejidoreari bidalitako agindua, San Joan Areitzagak eta Lope Oikiak bretoiei eta frantsesei karabela Frantziarekin bakea sinatu baino

lehen edo geroago harrapatu zietenjakin zezaten. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. VIII-1497. 309. Orria.

- 1525-XII-11, Deba. Ahalordea, andre Maria Otxoa Iartza alargunak Beltran Mantzizidorren alde emandakoa, Juan Aldalur eta Arrona burdinolako olagizon Juan Hermuarengandik, obligazio batengatik zor dioten dirua eta garia kobratu eta hartzeko; guztiak Debako auzoak. Gipuzkoako protokoloen Artxibo Historikoa (AHPG-GPAH), 2/1881,A:91r-91v.
- 1527-IX-30, Zumaia. Obligazioa, Debako auzo Arronako burdinolaren jabe Joan Arronak Juan Lopez Arriaga Zumaiako auzoaren alde egindakoa, maileguz 13 kintal burdinaren balioa hartu ziolako. AHPG-GPAH, 2/3283,A:39v.
- 1537-VII-13, Deba. Obligazioa, Arroa burdinolako olagizon Juan Herrementeriak Debako auzo Juan Martinez Iartuaren alde egindakoa, Galarretako mendietan 200 zama ikatz egiteko. AHPG-GPAH, 2/1882,A:115v.
- 1541-II-24, Zumaia. Obligazioa, Arroa burdinolako jabe Juan Errementeria olagizonak Maria Martinez Erlaeteren alde emandakoa, zor diona ordaintzeko. AHPG-GPAH, 2/3291,A:12r-12v.
- 1541-IV-26, Zumaia. Obligazioa, Debako auzo eta Arrona etxeko eta burdinolako jabe Juan Errementeriak Zumaiako auzo Joanes Amezketaren alde emandakoa, zamari bat eta urdaia ordaintzeko. AHPG-GPAH, 2/3291,A:21r-21v.
- 1550-III-9, Zumaia. Errentamendua, Arroa burdinolaren erdiarena, Arronako olagizon Juan Ermuak Bizente Sorasuren alde egindakoa, biak Debako auzoak. AHPG-GPAH, 2/3296,A:8r-8v.
- 1550-V-6, Zumaia. Errentamendua, Arrona etxea eta bere ondasunen, burdinolaren eta errotena, Juan Martinez Arteagaren testamentu-betearazle diren San Pedro elizako bikario Hernani lizentziatuak, eliz-maiodomo Juan Gartzia Villafrancak eta Juan Arestik Bizente Sorasuren alde egindakoa, kapera bat eraikitzeari buruzko testamentuaren xedapen bat betez. AHPG-GPAH, 2/3296,A:13r-13v.
- 1550-VII-3, Arroako errementari barnean. Erreminta ematea, Debako eta Zumaiako auzo diren Maria Lopez Aldamarrek eta Juan Perez Areitzagagoienak Debako auzo Bizente Sorasuren alde emandakoa, Arrona burdinolari buruzkoa. AHPG-GPAH, 2/3288,A:1r.
- 1550-VIII-8, Zumaia. Konpromisoa, Arrona burdinolaren jabe eta Zumaiako auzo andre Maria Lopez Aldamarren, Debako auzo Juan Errementeriaren eta Debako auzo Fernando Zubeltzuren artekoa, Arrona burdinolaren presaren lanaren inguruan dituzten eztabaidak konpontzeko. AHPG-GPAH 2/3288,A:3v-4r.
- 1767, Zumaia. Esteban de Lazkanoren, Arroako bizilagunaren, testamentua. AHPG-GPAH, 2/3538,A:166r-171v.

## Ahozko testigantzak


Izen abizenak	Adina	Baserrria	Data	Lekua
Angeles Egaña	77	Aritzagan jaio eta Lopenen bizi	2021/03/25	Arroa Behea
Jexux Egaña	71	Katzaola	2021/04/08	Arroa Behea
Joxe Eizagirre Urrestilla	57	Toki Ederren bizi, baina Mardu baserrian lagundu (aita han jaiotakoa)	2021/02/20	Arroa Behea
Joxe Urbietia	79	Lopene	2021/03/25	Arroa Behea
Manoli Eizagirre Urrestilla	70	Toki Ederren bizi, baina Mardu baserrian lagundu (aita han jaiotakoa)	2021/02/20	Arroa Behea
Mari Karmen Eizagirre Urrestilla	69	Toki Ederren bizi, baina Mardu baserrian lagundu (aita han jaiotakoa)	2021/02/20	Arroa Behea
			2021/03/29	Itziar
Milagros Urbietia Illarramendi	81	Arroako Ola	2021/04/14	Arroa Behea
Primi Garate Urbietia	92	Keixetan bizi, ez baserriko bizitza. Baina Arroa Behean bizi den zaharrenetarikoa da.	2021/03/13	Arroa Behea


## Eranskinak

*Baserrien fitxaren eredia elkarriketen gidoiko galderekin*

<b>BASERRIAREN IZENA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	
<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko- arkeologikoak</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	
<b>Babes-maila</b>	
<b>Baserria</b>	
<b>Jabetza</b>	Zein zen etxearen jabea?
<b>Lurrak</b>	Zein lur erabiltzen zenituzten? Eta horien izenak.
<b>Egitura auxiliarrak</b>	Txabolarik, uraskarik... bazuen etxeak? Etxean toleara, labea.. bazegoen?
<b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b>	
<b>Nekazaritza</b>	Soroak: zer erein? Non? Garia? Baratza: zer erein? Handiak edo txikiak? Soroak garrantzia gehiago? Irina egiteko errotak non? Ongarritzeko ximaurra, karea? Nondik?
<b>Abeltzaintza</b>	Zein animalia izan eta zenbat? Behiak? Txerria? Ardiak eta ahuntzak? Oiloak? Idiak? Astoak? Behiak non? Ukuiluan? Larreak non? Animalientzat jatekoan nondik lortu? Garoa, belarra (zuhatzak edo belar tokiak), soroetan arbia erein, belar motak erein? Ximaurrarekin ongarritu baratza eta soroak?
<b>Frutagintza</b>	Zein fruta jan? Sagarrak, mizpirak, txermenak, aranak, keixak, intxaurrak, gaztainak... Frutarbolak non? Sagastiak? Landareak nondik lortu? Non atera landareak? Nola? Sagardoa egiten zen? Tolareak non? Zein sagar mota?
<b>Janariaren kontserbazioa</b>	Nola kontserbatzen zenuten janaria?
<b>ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	Etxean sobratzen zena saldu?
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	Ura nondik edateko? Etxean ura bai? Nondik?
<b>Egurra</b>	Egurra: kirtanak, eskuareak, etxea konpontzeko oholak, makilak (urritza)...

<b>Metalezko eta zeramikazko elementuak</b>	Metalezko gauzak: sardeak, aitzurrak...? -Arroan burdinola: Arroako Olan, edo non? Teilak nondik? Teila fabrikak? Ontziak (zeramika/lurrezkoak edo metalezkoak), nondik lortu? Erosi?
<b>Etxean ekoizten ez zen janaria</b>	Zer erosten zenuten jateko?
<b>Arropen garbiketa</b>	Arropak nondik lortu? Etxean egin? Puntua? Josi? Garbiketa: -Arropak non garbitu eta nola? Sutako hautsa? Jaboa? Eskuz? -Etxearen garbiketa nola? Zerekin? Nondik lortu gauza hoiek?
<b>Bestelakoak</b>	Garraioa: -Materiala idiekin gurdia? Astoak? -Inguruko herrietara pertsonak? Trena? Oinez? Kotxea gerora? Hori guztia esanda, lehengo baserri munduko bizimodua ikusita eta gaur egunean dagoena, zer diozue horren inguruan? Nola gogoratzen dituzue garai haiek? Zer esango zenukete gaur egungo gazteriaren inguruan?
<b>Ahozko ondarea</b>	
<b>Toponimia</b>	Etxeko lurren izenak?
<b>Bestelako hitzak</b>	

<b>1. AGOTE GOIKOA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 559623    Y: 4791289    Altitudea: 64m (UTM 30N ETRS89)

<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Ona. Egoera onean aurkitzen da, teilatua berrituta du, baita hormak ere.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea



## 2. AKERTZA

### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak


**Argazkiak**



**Kokapena**



X: 558977 Y: 4791133 Altitudea: 24m (UTM 30N ETRS89)




<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko- arkeologikoak</b>	1436ko eta 1458ko dokumentuetan <i>Aquerça</i> -koak agertzen dira, lehenengo urtean Joan de Aquerça eta Martin de Aquerça eta bigarrenean, ostera, Joan Martinez de Aquerça.
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean goitik behera bota zuten. Hala ere, bertan bizi zirenak etxe berri egin zuten beste leku batean.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Akertzan baba jotzeko makina zuten eta etxez etxe ibiltzen ziren baba jotzen auzoko guztiekin batera.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i> . Zestoaren Historia (I).
<b>Ahozko testigantzak</b>	Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

### 3. AKERTZA BERRI

#### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak

<p><b>Argazkiak</b></p>	
<p><b>Kokapena</b></p>	<p>X: 558840 Y: 4791014 Altitudea: 69m (UTM 30N ETRS89)</p>
<p><b>Planoa</b></p>	
<p><b>Zantzu historiko-arkeologikoak</b></p>	<p>Akertza Berri Akertzan bizi ziren maizterrek egin zuten, XX. mendearen lehen erdian. Aitzitik, egin eta berehala erre egin zen. Ondorioz, berriro ere Akertzara joan ziren bizitzera, poligonoa egiteko bota zuten arte.</p>
<p><b>Egungo kontserbazio egoera</b></p>	<p>Ererita. Baserria erre egin zen eta hormak erdizka daude zutik.</p>
<p><b>Babes-maila</b></p>	<p>Ez dago babestuta.</p>
<p style="text-align: center;"><b>Erreferentziak</b></p>	

<b>Ahozko testigantzak</b>	Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>4. ARANBERRI BEHEKOA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 558188 Y: 4791821 Altitudea: 41m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Nahiko ona. Teiltuaren zati bat berrituta du, bestea ez. Hormak ondo daude.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.





## 5. ARANBERRI GOIKOA

### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak

Argazkiak





	
<b>Kokapena</b>	X: 558051 Y: 4791565 Altitudea: 101m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. 1960ko edo 1970ko hamarkadan suntsitu zuten. Lehenengo argazkiko eremuan zegoen kokatuta eta apur bat hurrengo bi argazkietan ikus daitekeen moduan maldan behera botata daude etxea osatzen zuten harri eta adreiluak.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



## 6. ARITZAGA

### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak


Argazkiak





	
<b>Kokapena</b>	X: 558319 Y: 4790473 Altitudea: 119m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko-arkeologikoak</b>	<p>1436an, Itziar, Arroa eta Mendaroko lurretako biztanleek Debako udalari ordaindu behar ziotenaren zerrendan <i>Areycaga</i> agertzen da. Baita <i>Areycaga de suso</i> ere, hau da, Areitzaga Goiena. 1458ko azaroko dokumentu batean agertzen da, non Debako Kontzejuak ahalordea eman zien hamabi diputaturi herri-lurrak mugarritu eta salmenta-agiriak ezar zituzten. Bertan ere, Areitzaga eta Areitzaga Goiena agertzen dira. 1465eko azaroaren 26an Itziar, Lastur eta Arroako 49 auzotarrek onartu egin zuten beren etxe eta burdinolak Debako hiribilduaren lurretan zeudela, eta bertako pribilegioak eta ordenantzak betetzeko konpromisoa sinatu zuten. Bertan <i>Areycagaxe</i> izena agertzen da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren fitxan honako hau ageri da: 1543an dokumentazioan <i>Arreycaga</i>-ren baserria eta burdinola berria aipatzen dira.</p> <p>Seguruenik Areitzaga Goiena gaur egungo Aritzaga baserria izango zen, hori baino gorago ez baitago beste baserririk. Bestetik, aipatzen den burdinola berria Olaberri izango zen, lehen errekaaren ondoan baitzegoen. Horrez gain, Zelaikoari Aritzaga-Zelaikoa, Galtzagari Aritzaga-Galtzaga eta Joan</p>



	Domingori Aritzaga-Joan Domingo ere esan omen zaie. Gainera, Iñaki Azkunereren “Zestoaren historia” lanean, hiru Aritzaga bereizten dira: Aritzagagoiena, Aritzaga-Zelaikoa eta Aritzaga-Joan Domingo, izan ere, dokumentuetan horrela izendatuta daude.
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Ona. Egoera onean kontserbatzen da.
<b>Babes-maila</b>	Balizko arkeologia eremu gisa izendatuta dago.
<b>Baserria</b>	
<b>Jabetza</b>	Maizterrak. Zarauzko Dukea zen jabea. Errenta dirutan zein garitan eta kapoietan ematen zitzaion.
<b>Lurrak</b>	Zoatxu, goiko mendiak, beheko soroak, Iturraldeko soroak...
<b>Egitura auxiliarrak</b>	Bosabera, 1951an egin zuten teilatuko ura biltzeko. Bertan uraska ere egin zuten, baina gaur egun ez da kontserbatzen. Hona hemen bosabera egin zuteneko argazkia:
	
<b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b>	
<b>Nekazaritza</b>	Garia asko egiten zuten. Nahiko berandu utzi zuten garia egitea. Gari jotzeko auzoko denak elkartzen ziren eta baserriz baserri txandan ibiltzen ziren elkar laguntzen. Garia ebakitzekoa, jotzeko matxaka (eta hori ibiltzeko motorra) eta tornua Aritzagan daude. Garia urtero lekuz aldatzen zen, askotan belarrarekin egiten zen aldaketa. Lan asko izaten zuen, aitzur estuarekin jorratu behar izaten zen eta. Izan ere, gari tartean oloa ateratzen zen, hasieran ez ziren bereizten baina gerora bai. Ondorioz, garia jo aurretik oloa bildu behar izaten zen. Gari jotzen jende asko biltzen zen, 20 bat lagun. Hasieran, Errekaxo ibiltzen zen gari jotzen traktorearekin, gero, berriz, Antxita trilladorearekin. Azken makina horrek garia alde batera eta lastoa bestera botatzen zuen. Abereentzat pagotxa, alpapa eta allubria ere egiten zuten. Pagotxak artoa egiteko lur harro-harroa lagatzen zuen. Artoa eta baba asko egiten zuten eta

	tartean erremolatxa. Baita baba beltza ere. Baratza koskorra izaten zen, etxerako haina. Lehen soroak garrantzi gehiago zuten artoa eta baba asko egin behar izaten baitzen. Eguneroko jana baba gorria zen. Hala, porruak, tipulak, azak, azaloreak, bainak, ilarrak, tomateak, piperrak... egiten ziren.
<b>Abeltzaintza</b>	Txerri bat edo bi eta 8-10 behi izaten zituzten. Zaldia eta idi pareta ere izaten zuten. Aritzagan ardiak ere bazituzten.
<b>Frutagintza</b>	Sagarrondo dezente zituzten. Errege sagarra asko izaten zuten, sagar zuria, Aizarna sagarra, libra sagarra, San Juan sagarra, etab.
<b>Janariaren kontserbazioa</b>	Gatzetan kontserbatzen ziren, zezeña eta egiten zen.
<b>Etxeko industria tradizionala (transformazioko jarduerak)</b>	Tomatea botilatan egiten zuten. Horretarako papeletak erabiltzen zituzten. Bestalde, ogia ere etxean egiten zuten astean pare bat aldiz. Horretarako ekonomikako labea erabiltzen zen.
<b>Ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	Egunero esne saltzera joaten ziren kalera, Zumaiara. Arrautzak ere saltzen zituzten. Bestalde, jansagarrak ere asko saltzen zituzten. Izan ere, Aritzagan sagar zuria deitzen zioten sagarra zuten, asko irauten zuena eta mailatzen ez zena. Ondorioz, marinela askok sagar hori nahi izaten zuten. Bestalde, etxera sagar erostaileak joaten ziren, errege sagar asko erosten zieten baita txalaka ere.
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	Aritzagako zuloan iturria zegoen eta bertatik hartzen zuten ura. 1951n, bosabera egin zuten teilatuko ura jasotzen zuena, uraska eta guzti. Gerora, osteria, beheko zuloko iturriko ura bonba baten bidez baserrira bertara igo zuten.
<b>Egurra</b>	Zume asko zituzten eta lodienak Getariara eramaten zituzten, otarrak egiteko.
<b>Metalezko eta zeramikazko elementuak</b>	Etxez etxe saltzaileak ibiltzen ziren eta horiei erosten zieten.
<b>Etxean ekoizten ez zen janaria</b>	Arraina normalean Zumaiatik ekartzen zuten. Izan ere, bertara esnea saltzera joaten ziren eta bueltakoan arraina erosten zuten, askotan esnearen truke. Hala, marmita bete arrain ekartzen zuten: bisigua, txitxarrua, angulak... Arrain asko jaten zuten kalean saltzen ibili zirenean. Olioia, azukrea eta gatza ere kanpotik erosten zuten.
<b>Arropen garbiketa</b>	Txinbo jaboiarekin eta lixibarekin garbitzen zituzten arropak. Horretarako iturrira joaten ziren eta bertan uraska zegoen. Bertara zaldia hartuta joaten ziren. Inguruko baserriko jendea bertan jarduten zen arropak garbitzen. Gero, ordea, uraren bosabera egin zutenean, bertan uraska zutenez hor garbitzen zituzten.
<b>Bestelakoak</b>	Arropak etxean egiten zituzten, josita. Jertseak ordea kanpotik ekartzen zituzten. Aitzitik, etxean artile asko izaten zutenez, txabliarekin haria egiten zuten eta gero artilezko galtzerdiak egin behar izaten zituzten.
<b>Ahozko ondarea</b>	
<b>Toponimia</b>	Zoatxu, goiko mendiak, beheko soroak, Iturraldeko soroak...
<b>Bestelako hitzak</b>	Txablia
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i> .

	Zestoaren Historia (I). Eusko Jaurlaritza, 1998ko urtarrilaren 26ko buletina. Aritzaga baserriaren fitxa. BOPV n° 16.
<b>Ahozko testigantzak</b>	Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatuta).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

## 7. ARROAKO OLA

### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak

#### Argazkiak








**Kokapena**

X: 559016 Y: 4790539 Altitudea: 33m (UTM 30N ETRS89)

**Planoa**



**Ezaugarri historiko-  
arkeologikoak**

1349ko Gaztelako Alfontso XI.a erregearen gutun batean *ferrería de Arrona* agertzen da. Bertan, Lope Diaz Rojaskoari, Gipuzkoako merio nagusiari, Fernando Martinez Elorriagoakoaren eta Debako Kontzejuaren arteko auziaren epaia bidali zioan, zeinak itsasontzi eta galerak egiteko Arroako burdinolarako egur ikatza egiteko erabiltzen ziren haritzei buruzkoa zen. 1465ean, Debako hiribilduko Kontzejuak eta bertako lurraldeetako burdinolen nagusiek ituna sinatu zuten eta bertan Arroako burdinola ageri da, bertako jabea Ochoa Martinez zelarrik. Urte bereko beste dokumentu batean ere agertzen da, Itziar, Lastur eta Arroako 49 auzotarrek euren etxe eta burdinolak Debako Hiribilduaren barruan zeudela onartu zutenean. XVI. mendean ere askotan aipatzen da Arroako burdinola. Aipagarria da, 1541etik aurrera *la casa y ferrería de Arrona* agertzen dela. Gainera, 1550an

	<p>Arroako burdinola bitan banatzen dutela ageri da, izan ere, erdia alokatzen dute. Gerora, bi jabe ere agertzen dira: <i>dueños de la casa y ferrería de Arrona</i>.</p> <p>1767an, berriz, Estevan de Lazcanoren testamentuan <i>Arroacoola</i> pare bat aldiz aipatzen da.</p> <p>Hori guztia esanda, seguruenik bertan burdinola egon zen. Hasierako dokumentuetan agertzen dena ez zen Arroako Ola etxea bera izango, orduko burdinola txikiak aterpe batean egoten baitziren. Gerora, ordea, seguruenik Arroako Ola etxea burdinola izango zen. Eraikuntzako elementuek hala adierazten baitute (irakurri “Etxea” atala). Nire ustez, ezkerreko etxebizitza garai batean burdinola izan zen eta eskubikoa bizitokia eta, ondorioz, denborarekin bertan beste etxebizitza bat egin zuten.</p>
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. A-8 autopista egin zutenean bota zuten, 1971n edo 1972an, izan ere, 1973an autopista martxan ipini zen.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Baserria</b>	
<b>Jabetza</b>	Maizterrak. Bi etxebizitzako baserria zen.
<b>Etxea</b>	<p>Baserri ederra zen. Aurrean bi arku zituen, etxebizitzetarako sarrerak zirenak, eta erdi-erdian armarría (gaur egun Arroako Ola berrian dago). Etxearen bi alboetan ukuiluetako atea zeuden. Arroako Ola bi etxebizitzako baserria zen. Ezkerreko aldean Milagros eta haren senideak bizi ziren eta eskubiko aldean Clemente eta haren familia. Etxebizitzetako sarrerak arkuetan zeuden, aterik gabeak, aitzitik, ezkerreko aldean atea egin zieten. Ezkerreko sarreratik gurdia aldenik alde sartzeko lekua zegoen. Gainera, zorua harri txikiz osatuta zegoen marrazkiak zituelarik, proba-lekuetan bezalako zorua, galtzada modukoa. Harriak lurrean sartuta zeuden gora begira, bata bestearen ondo-ondoan jarrita. Pasilloaren alboetan animaliak lotzeko loturak zeuden. Etxearen atzeko aldean, abereak egoteko tresabiak zeuden eta sukaldea aurrez aurre. Halaber, hasierako zati guztia libre zegoen.</p> <p>Bestalde, etxe atzetik zihoan bideko petrila burdina egiterakoan ateratzen den harri beltzez eraikita zegoen.</p> <p>Horrez gain, Usarroan ura biltzen zuten eta eguerdi aldera ireki eta ura kolpera botatzen zuten. Hala, ujala etortzen zen eta errekek gora egiten zuen. Modu horretan, garai hartan argindarra lortzen zuten, soroetako batean zegoen turbinaren bidez. Posible da aurretik burdinolarentzako erabili izana. Aipagarria da lehenengo argazkian ezkerreko etxebizitzako leihoak berriak zirela eta eskubikoak ez. Hori horrela, gerora egindakoak zirela ematen du. Bigarren argazkian, osteria, leiho berria dago eta gainera, hormak eraberrituta agertzen dira.</p>


<p><b>Lurrak</b></p>	 <p>Horiz Arroako Olaren ezkerreko etxebizitzako lurrak eta laranjaz eskubikoak. Hala ere, agian eskubikoen lur batzuk falta dira.</p>
<p><b>Egitura auxiliarrak</b></p>	<p>Etxe ondoko txabola, bertan trasteak izaten zituzten. Mendian txabola bat zuten, lurrez egina. Leihoa ere bazuena. Ondare bezala garrantzitsua zenez ez zuten guztiz berritu, zati bat zegoen moduan utzi zuten.</p>
<p><b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b></p>	
<p><b>Nekazaritza</b></p>	<p>Garia: Azaroan ereiten zuten. Neguan zehar jorratu behar izaten zen aitzur estu eta kirten luzeekin. Horrela, tarteko belarrak kentzen ziren. Gero, San Pedrotan garia ebakitzen zuten, horrela, nahiz eta berandu izan artoa eta baba ereiten zuten, urtean lur beretik uzta bat gehiago jasotzeko, nahiz eta nekezago etortzen zen. Ondoren lastaikoak egiten zituzten, hau da, gariarekin egindako txortak. Lastaiak gariarekin berarekin lotzen ziren eta horretarako aproposa zen egur txiki bat erabiltzen zen korapiloa egiteko. Zaila omen zen lastaiak lotzea eta horretan ondo moldatzen zirenak ibiltzen ziren. Horiek tenteka edukitzen ziren lehortzen. Nahiz eta beste leku batzuetan ez egin, beraiek meta handiagoak egiten zituzten lastaiekin. Lastaiak gari-buruak barrurantz zituztela bata bestearen gainean bueltan-bueltan ezartzen ziren, meta osatuz. Modu horretan, ura kanpotik joaten zen. Horrela denbora bat lagatzen zen, ondo ihartu arte. Azkenik, matxakan jotzen zen. Hala ere, gerora Antxieta ibiltzen zen makinarekin eta horrek lana errazten zuen. Bertan, gari motza eta garbia egiten zen eta askok hazitarako bertatik eramaten zuten.</p> <p>Bestetik, lehen aipatutako artoa eta baba, patata, arto berdea abererentzat, arbia, erremolatxa... egiten zen. Baita pagotxa ere, hori baitzen abererentzat bazka onena. Pagotxa hirukotxaren antzekoa zen lore gorria ematen zuena. San Telmo egun inguruan ebakitzen zen, baina ez guztiz, hazitarako lagatzeko. Behin ihartzen zenean hazia batzen zen.</p> <p>Artoari dagokionez, jaso osteko lanak auzokoekin egiten ziren. Artozuritzea eta aletzea adibidez. Aipagarria da etxeetako emakume batzuk artozuritzen ibiltzen zirela etxez etxe eta horren trukean kobratzen zutela.</p>

	Gehiena soroetan egiten zen, baratza txikia izaten zuten. Azpetira joaten hasi zirenean, baratzak indarra hartu zuen, bertatik landare berriak ekartzen baitzituzten (piperrak, tomateak...).
<b>Abeltzaintza</b>	5-6 bat behi izaten zituzten, haien txahalekin batera. Hau da, zituzten lurrek ematen zuten beste. Horrez gain, ardiak ere bazituzten mendian, ez asko. Haien arkumeak errekan hiltzen zituzten, odola errekek eramaten zuelarik Gainera, mendian zegoen txabolan oiloak ere bazituzten. Bestetik, txerria ere hazten zuten, normalean bakarra.
<b>Frutagintza</b>	Sagastia Menditxon zuten. Erreka bazterrean ere bazituzten sagar batzuk eta beherago ere sagarrondo galdu batzuk zituzten. Sagar motei dagokionez, asko sagardotarako ziren. Hona hemen zituzten sagar motak: donosti sagarra (geza), aitza sagarra, errege sagarra asko, urdin sagar batzuk, luzezka zuria sagardotako, kanpandoja... Aldekoan kanpandojan atzekoa zuten, ez geza ez gazia, jateko ona zena. Sagardoa Zelaikoan egiten zuten. Bestetik, etxaldean fruta gutxi zuten, arana eta horrelakoak gutxi. Aitzitik, mendiko txabolaren ondoan gereziandoa zuten eta erreka ondoan intxaurrondo bat. Etxean ez zituzten gaztainak, baina Teleintxeberriko Joxeparekin umetan Mastran aldera joaten ziren gaztainak biltzera.
<b>Janariaren kontserbazioa</b>	Bestetik, haragia gatzetan kontserbatzen zuten. Hala, zezeña egiten zuten, ardiarena normalean. Aitzitik, ezbeharren batekin abereren bat hiltzen bazen horrekin ere zezeña egiten zuten. Hala ere, inguruko auzokoren batek aberearen haragia nahi bazuen zati bat saltzen zitzaion. Izan ere, beraiek ez zeuden terraman sartuta. Frutari dagokionez, sagarrak ganbailan gordetzen ziren belar ondoarekin batera. Artoa, aldiz, ganbaran.
<b>Etxeko industria tradizionala (transformazioko jarduerak)</b>	Garia irintzera Azpeitiko Goiko Errotara eramaten zuten. Artoa, oster, Alberdinera eramaten zuten, ondoen bertan egiten baitzuten, fin-fin. Sukaldeko obra eginda zegoen eta bertako ekonomikaren labean egiten zuten ogia.
<b>Ekoiizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	Etxeko jeneroa kalean saltzen zuten. Egunero Zumaira astoarekin joaten ziren esnea saltzera. Bertan astoak lotzeko lekuak egoten ziren, argoiak, eta etxez etxe esnea banatzen zuten. Arroaerrekako gainontzeko baserritarrek ere berdina egiten zuten, esate baterako, Garabangoek gazta saltzen zuten. Gerora, ordea, <i>letxeruak</i> esne bila etxera etortzen hasi ziren. Hala, Zumaiara joaten zirenean itzuleran, olioak, gatza eta azukrea ekartzen zuten. Gero, berriz, asteartetan Azpetira joaten hasi ziren eta handik ekartzen zuten.
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	Lizarretako soroaren ondoan iturria zegoen, Lizarretako iturria. Herriko ura omen zen. Etxerako ura errekatik hartzen zuten, bi balderekin eta hirurekin bazen hobeto. Abereak eta txerriak ura edatera errekarera eramaten zituzten. Erreka txikia zen, baju-bajua eta euri pixka bat egitean gora egiten zuen eta soroak urez betetzen ziren. Esate baterako, Karponeko (Leizaolako) ukuilura ura sartzen zen.
<b>Egurra</b>	Zumeak erreka bazterrean zeuden. Getariara saltzen zituzten mahatsa lotzeko. Pagoetako puntan haritzak eta pagoak zeuden, baita Elordiko zuloan ere. Antza denez, haize handiak izan zirenean (Zumaian trena haizeak bota zuenean) asko eta asko erori ziren eta ondoren pinua sartu zuten. Bertan zeuden pagoak nahiko zabalak ziren, seguruenik buruzkan moztuta, hau da,




	<p>pago-motzak. Hori horrela, etxeko egurra erabiltzen zuten. Esate baterako, kirtanak eta egiteko. Horretan Milagrosen osaba ibiltzen omen zen.</p>
<b>Zeramikazko elementuak</b>	<p>Adreilu fabrika zaharra errepidea pasa eta aldekoen (beste etxebizitzakoei hala deitzen zieten) lurretan.</p>
<b>Arropen garbiketa</b>	<p>Errekan garbitzen zituzten arropak. Uraska bat ere bazegoen. Hala ere, normalean etxeko arraskan garbitzen zituzten eta gero uraskan edo errekan erein eta urberritzen zituzten. Garbitzeko Txinbo jaboia erabiltzen zuten, sutako hautsik ez. Hala ere, inguruko batzuk sutako hautsarekin garbitzen zituzten eta zelaian lehortzen utzi.</p>
<b>Bestelakoak</b>	<p>Euren eguneroko jatekoa baba gorria eta aza zen, odolki edo zezeña zati batekin. Bestetik, patata tortila ere asko jaten zuten, etxean patata dezente egiten zelako.</p>

### Ahozko ondarea

<b>Toponimia</b>	 <p>Menditxo, Soro Zaharra, Pagoeta gaina, Sagastia, Aldapa, Baratza, Lizarretako Iturria, Uraskako zelaia eta Etxe azpikaldea.</p>
<b>Bestelako hitzak</b>	Argoiak
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	<p>Azkune Mendia, I. (2016). XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]. Zestoaren Historia (I). 1541/04/26, Zumaia. Obligazioa, Debako auzo eta Arrona etxeko eta burdinolako jabe Juan Errementeriak Zumaiako auzo Joanes Amezetaren alde emandakoa, zamari bat eta urdaia ordaintzeko. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, AHPG-GPAH 2/3291, A: 21r-21r. 1550/03/09, Zumaia. Arroako burdinolaren erdiaren alokatze ituna, Hermuako</p>

	Juanek emana, Sorasuko Vicenteren mesedetan, biak Debako bizilagunak. AHPG-GPAH 2/3296, A: 8r-8v. 1767, Zumaia. Estevan de Lazcano, Arroako bizilagunaren testamentua. AHPG-GPAH 2/3538, A:166r-171v.
<b>Ahozko testigantzak</b>	Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentua). Milagros Urbieta Ilarramendi, Arroa Behera, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>8. ARTZUBIA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 558734 Y: 4791569 Altitudea: 43m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko-arkeologikoak</b>	<p>1436an Itziar, Arroa eta Mendaroko lurretako biztanleek Debako Udalarri ordaindu behar ziotenaren zerrenda zehaztu zuten eta bertan <i>Arrçubiaga</i> agertzen da. 1465eko azaroaren 11n, aldiz, Debako hiribilduko Kontzejuak eta bertako lurraldeetako burdinolen nagusiek ituna sinatu zuten. Olagizonek Kontzejuko mendiak ustiatzeko baldintzak ezarri ziren. Besteak beste, Arroa, Iraeta, eta Liliko burdinoletako ordezkariak bildu ziren, orduan burdinola haiek Debako lurretan zeudelako. Eta horien artean <i>ferrería de Arçubia</i> agertzen da. 1465eko azaroaren 26an, berriz, Itziar, Lastur eta Arroako herritarrek euren etxeak zein burdinolak Debako lurretan zeudela onartu zuten eta beste hainbat etxeren artean <i>Caserya Arçuriaga</i> azaltzen da. Seguruenik Artzubia baserria izango zen dokumentu horietan agertzen dena, izan ere, Arroan eta inguruko herrietan ez dago antzeko izena duen baserririk.</p>
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Poligono industrialia egin zutenean bota zuten.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	<p>Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i>. Zestoaren Historia (I).</p>
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



**9. BEIN**


**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

**Argazkiak**




**Kokapena**


X: 560191 Y: 4791476 Altitudea: 110m (UTM 30N ETRS89)



<p><b>Planoa</b></p>	
<p><b>Egungo kontserbazio egoera</b></p>	<p>Erortzen. Hamarkadak dira bertan inor bizi ez dela eta pixkanaka erortzen ari da.</p>
<p><b>Babes-maila</b></p>	<p>Ez dago babestuta.</p>
<p><b>Erreferentziak</b></p>	
<p><b>Planimetria argazkien jatorria</b></p>	<p>GeoEuskadi Bisorea.</p>



<b>10. ETXE TXKI</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 558868 Y: 4791536 Altitudea: 25m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Gutziz erorita.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Angeles Egaña eta Joxe Urbietta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>11. GALTZAGA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	

<b>Kokapena</b>	X: 558550 Y: 4790502 Altitudea: 81m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Ona. Egoera onean dago etxea, teilatua zein hormak ederki daude.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>12. GOARDI BERRI</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 559374 Y: 4791537 Altitudea: 30m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Poligono industrialia egin zutenean goitik behera bota zuten.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Goardi Berrik lursail zabalak zituen. Bere lurretan, erreka bazterrean, untxitegia zegoen. Baserriaren eta lurren jabea Uriartetarrak ziren.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Primi Garate Urbietak, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 13an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



**13. GOARDI ZAHAR**


**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

**Argazkiak**



**Kokapena**

X: 559362 Y: 4791289 Altitudea: 35m (UTM 30N ETRS89)

<b>Planoa</b>	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Nahiko ondo. Zutik dago etxea eta teilatua zein hormak egoera onean ditu.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Jabeak Uriartetarrak ziren. Bestetik, etxe horretan zegoen inguruko behiak ernaltzeko ixkoa. Ernaltzearen trukean zerbait ematen zitzaion.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua). Primi Garate Urbieto, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 13an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



## 14. JUANDOMINGOENEA


### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak

**Argazkiak**



**Kokapena**

X: 558591 Y: 4790618 Altitudea: 71m (UTM 30N ETRS89)

<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko- arkeologikoak</b>	Iñaki Azkunereren “Zestoaren Historia” liburuan, Areitzaga Juan Domingo agertzen da XV. mendean. Haren ustez Joan Domingo Areitzagakoa prokuradorearen izenetik dator izena.
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Ona. Teilatua zein hormak berrituta ditu eta egoera oso onean kontserbatzen da.
<b>Babes-maila</b>	Eraikitako ondare gisa katalogatuta dago (58. Fitxa), baina ez dago babestuta gaur egunean.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Bertan tolarea zegoen. Arkitekturari dagokionez, bi isurialdeko teilatua du. Etxearen aurreko aldean, ordea, estalpea du eta bertan dago etxeko sarrera, arku eta guzti. Ezkerreko horman ganbarara igotzeko bidea dago, zubi gisakoa. Bestetik, etxearen horma guztietan daude leihoak, aurreko aldean lau eta atzeko aldean bost, esate baterako.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i> . Zestoaren Historia (I).
<b>Ahozko testigantzak</b>	Milagros Urbieta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



**15. KATZAOLA**

**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

**Argazkiak**





**Kokapena**  
**Planoa**

X: 558756 Y: 4791094 Altitudea: 47m (UTM 30N ETRS89)



**Ezaugarri**  
**historiko-**  
**arkeologikoak**

Etxearen izenari dagokionez, gaur egun Katzaola du izena, hala deitzen diote. Aitzitik, Gatzola edo Garaola izan zitekeela esan digu Jexuxek. Ez zebilen gaizki. Izan ere, 1483ko lurren mugarriketa azaltzen den dokumentu batean *Gaçaola* eta *Gaçaolaerreka* agertzen dira. Euren familia 1906an joan zen bertara bizitzera, aurretik kamiñeroren batena omen zen eta etxea nahiko zaharkituta zegoen. 1969-1970 bueltan etxearen



	zati bat eta lur batzuk Ondarroako bati saldu zizkioten. Horrela, etxearen beste aldean gelak egin zituzten eta bertan bizi ziren. Handik 20 edo 22 urteetara, ordea, ondarrutarrak bere zatia saldu behar zuela esan eta berriro ere eurek erosi zieten. Orduan, taberna ipini zuten bertan.
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Gaur egun egoera onean kontserbatzen da, hormak berrituta ditu eta teilatua nahiko egoera onean dago.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Baserria</b>	
<b>Jabetza</b>	Jabeak ziren/dira.
<b>Lurrak</b>	Etxe bueltan terreno danak eta Txindurri aldeko pusketa.
<b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b>	
<b>Nekazaritza</b>	<p>Jexuxek garia oso gutxi ikusi zuen. Azkena, etxe aurreko Larrañeian egin zuten. Hala ere, <u>garia gerora egin zuten</u>: Gasteiztik ekarri zuten garia. Goiko zabala goldatu eta bertan erein zuten. Garaiko zaharrek esan omen zuten gari ona etorri zela. Garia ebakitzeko idiekin ebatekoa erabili zuten, Aritzaga baserrikoa. Izan ere, Aritzagan garia ebakitzeko eta jotzeko tresna zaharrak gordeta zeuden. Beraz, lehengo erara egin zuten. Garia idien laguntzarekin bueltan-bueltan ebaki eta gero, garikoak egin zituzten eta lotu. Horretarako egurrezko tresna bat erabili zuten. Horrela lehortzen utzi zuten. Behin lehortuta, garia garbitzeko tornuan pasatzen zen eta batzuk horretan zeuden bitartean besteak zuhatza egiten jardun zuten. Inguruko baserriar asko elkartu ziren horretarako: Katzaolakoak bertakoak, Aritzagakoak, Galarretakoak, Pagoetakoak...</p> <p>Bestalde, etxean artoa eta baba asko egiten zuten, baita patata asko ere sukalderako eta abereentzako. Bestetik, baba handia egiten zuten, baina tartekoa, ez baba handia eta ez baba txikia. Eurek ez zuten baba jotzen. Txortak egin, jaso eta handik abereei ematen zitzairen. Belarra ontzen den antzera. Hala ere, Urkihaundi lehen eta Akertzakoak gero baba jotzen ibiltzen ziren inguruko baserrietan. Normalean Karmen egun bueltan jotzen zuten, jendeak lanean jai izaten baitzuen eta denak elkartzeko.</p> <p>Horrez gain, arbia eta belar ondoa ere negurako egiten zen. Arbia behin patata kendutakoan ereiten zuten. Artoaren tartean erremolatxa eta kalabaza ere egiten zuten.</p>
<b>Abeltzaintza</b>	5 behi izaten zituzten, 3-4 txahalekin batera. Behin txahalak hazitakoan zumaira oinez joaten ziren harategira saltzera. Idi pareak ere izan zuten baina nahiko azkar kendu zituzten, gero behiak erabiltzen zituzten uztarran. Bestalde, txerria ere hazten zuten, bakarra normalean, hala ere, urtean bi hazten zituzten batzuetan baina banaka, ez biak batera. Horrez gain, 20 bat oilo izaten zituzten, etxean ateratako txitekin batera.
<b>Frutagintza</b>	<p>Sagarrondoak lehen etxeko goiko aldean egoten ziren, erditik gora. Sagardoa egiten zuten eta horretarako etxeko tolarea ibiltzen zuten. Gainera, garai hartan erabiltzen zuten egurrezko matxaka oraindik gordeta dute. Sagarrondo landareak etxean bertan ateratzen ziren eta gero txertatu. Horretarako bria erabiltzen zuten, erretxinarekin eta zeboarekin egindako pasta modukoa, alegia.</p> <p>Bestalde, etxaldean gereziondo ugari zeuden, melokotoi bakarren bat, txermen bat eta pikua ere bai.</p>
<b>Etxeko industria tradizionala</b>	Tolarea etxean bertan zuten, etxerako sagardoa egiteko. Artoa irintzera errotara eramaten zuten, normalean Zestoako Alberdinera.



<b>(transformazioko jarduerak)</b>	Aitzitik, behin Aizarnazabalera joan ziren Beheko Olara, bertan irintzeko asmoz, baina ordurako errota geldirik zegoen. Errotara joandakoan artoa laga eta irina hartzen zen. Errotakoak, ordea, zati batekin geratzen ziren. Gerora garia egin zutenean, Aizarnazabaleko Zupiria zaharrak pasa zuen errotan. Bestalde, Larrondon ere bazegoen errota.
<b>Ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	Txahalak Zumaiko harategira saltzen ziren. Sagarrak ere saltzen zituzten, sagardotegietarako. Horrez gain, jansagarra Arroako Olano-enera eramaten zuten, lehenengo onenak saltzeko.
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	
<b>Egurra</b>	Etxekoa erabiltzen zuten, euren basokoa. Kirtenak egiteko gehiena lizarra edo urritza erabiltzen zen. Sutako denetarik, hala ere, etxekoarekin iristen ez bazen zerreitik ekartzen zen alboko laka. Bestalde, gurdiak etxean egiten zituzten, arkaziarekin. Egur bakoitza bere garaian bota behar izaten zen. Arkazia neguko ilberrian edo ilberan botatzen zen eta hamar bat urtean botatako lekuan lagatzen zen apur bat estalita, horrela bizioak kentzen zitzaizkion. Altza maiatzeko ilberrian eta gehiago irauteko azala kentzen zitzaion. Urritzak azaroko ilberrian. Aritzak neguko ilbeheran. Gehienak ilbeheran botatzen ziren. Uztarriak egiteko pagoa erabiltzen zen. Hala ere, pitzatu eta uretan beratzen uzten zen egurra, uztarria egiteko biguna egoteko. Presalde ibiltzen zen uztarriak egiten.
<b>Bestelakoak</b>	Terrama: auzoen artean abereren bat ezbehar bat tarteko hiltzen bazen elkarren artean banatzen zuten. Jexux umea zela Elorriagara joan zen Inaxiorekin asto gainean, Etxenausikoei biha hil zitzaielako. Halaber, Katzaolan ez zen terramarekin jarraitu. Goiko zabalaren ondoan herriko proba-zelaia zegoen, herri bidean, harri eta guzti. Bertan herritarrak ibiltzen ziren.
<b>Ahozko ondarea</b>	
<b>Toponimia</b>	Larraiña (etxe aurrekoa, orain bidea doana), goiko zabala, goiko gaina, pago gain, Lopeneko Arteta, Artzuiako arteta,
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i> . Zestoaren Historia (I).
<b>Ahozko testigantzak</b>	Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

**16. LOKATZA**

**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 558985 Y: 4791498 Altitudea: 23m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Poligono industrialia egin zutenean goitik behera bota zuten. Aitzitik, bertan bizi zirenek izen bereko etxea egin zuten beste leku batean.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

**17. LOPENE**

**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**


**Argazkiak**



**Kokapena**

X: 558993 Y: 4791419 Altitudea: 24m (UTM 30N ETRS89)



<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Poligono industrialala egin zutenean goitik behera bota zuten. Hala ere, bertan bizi zirenek etxe berria egin zuten beste leku batean.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Baserria</b>	
<b>Jabetza</b>	Maizterrak. Tellendikoak ziren jabeak eta dirutan ordaintzen zieten errenta, baita kapoiekin ere.
<b>Lurrak</b>	Kastainatxiki, Lurteia, Beheko Erribera, Artzuia aldea, Aranberri aldea, Olasparru, Olaberri aldea, Pago gaina...
<b>Egitura auxiliarrak</b>	Txabola. Uraska.
<b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b>	
<b>Nekazaritza</b>	<p>Garia egitea nahiko goiz utzi zitzaion, izan ere, lur horietan lasto asko eta buru txikia egiten zen. Horrez gain, artoa eta baba, baba beltza, arbia, erremolatxak, patata, pagotxa, allubria, alpapa, etab. egiten ziren. Ahalik eta etekin handiena ateratzeko txandakatze sistema zuten: eremu berdinean, lehenengo artoa eta baba egiten zuten, ondoren arbia ereiten zuten eta hurrengo urtean garia. Horrela etengabe.</p> <p>Baba beltza jo behar izaten zen eta horrelako lanak auzokoen artean egiten ziren. Horretarako baba jotzeko makina etxez etxe ibiltzen zuten.</p> <p>Lopenen baba eta artoa asko egiten zen, izan ere, gaur egun bezala babak dirua ematen zuen, egunerokotasunean gosea kentzeaz gain. Hori horrela, baratza txikia izaten zen, soroek garrantzia gehiago baitzuten. Bertan porruak, tipulak, ilarrak, bainak, azak... egiten ziren.</p>
<b>Abeltzaintza</b>	Urtero txerri bat edo bi hazten zituzten. Idi pareta eta astoa izaten zituzten lanak egiteko. Bestalde 5-6 behi izaten zituzten. Garai hartan, behi suizak izaten ziren. Oiloak ere izaten zituzten, etxean txitak hazten zituztelarik. Gainera, kapoiak egiten zituzten urtero.
<b>Frutagintza</b>	Sagardoa asko egiten zen, ez baitzen ia ardorik edaten. Egunerokotasunean edaten zena etxeko sagardoa izaten zen. Horretarako sagarrondo ugari zituzten, mota ezberdinetakoak: sagardo sagar gorria, moliua, merkamiña,



	<p>geza gorria (asko), txorisagarra, san inazio sagarra, txorten luzia, san pedro sagarra, libra, etab.</p> <p>Etxe bueltan bestelako fruta arbolak ere bazituzten: txermena, pikuak, mispirak, gereziondoak, intxaurrondoak...</p>
<b>Janariaren kontserbazioa</b>	<p>Haziak: etxean lehortu eta pototetan gordetzen ziren. Baina labore batzuen hazia etxean ateratzea zaila zen, esate baterako, frantses arbiarena. Aldiz, arbi txuriarena erraz egiten zen.</p> <p>Baserrien artean hermandadeak zeuden, ezbehar batengatik abereren bat hilez gero denen artean banatzeko. Lopenerekin batera honako hauek ziren: Irure Haundi, Elordi, Olientxiki, Agote Goikoa, Arroako Olako eskubikoak... Izan ere, orduan ez zegoen hozkailurik eta gatzetan kontserbatzen zen haragia. Horretarako haragia kutxetan ipini eta gatzarekin tapatzen zen, gainean harri bat ipiniz. Gero buelta eman behar izaten zitzaion.</p> <p>Bestalde, tomatea enbotilatu egiten zen, papeleta batzuk erabilia, horrela kontserbatzea lortzen zuten.</p>
<b>Etxeko industria tradizionala (transformazioko jarduerak)</b>	<p>Artoa irintzera Zestoako Alberdinera eramaten zuten edo Larrondoko errotara. Iraetako errotan ez omen zuten ondo irintzen. Errotariak artoaren zati batekin gelditzen ziren eta horri laka esaten zitzaion.</p> <p>Sagardoa egiteko tolarerik ez zuten beste baserri batzuetan egiten zuten. Arroa inguruan toleara zuten baserriak hauek ziren: Olientxikin, Talonean, Urki Haundin (eskuz ereindako matxaka), Juan Domingonean, Zelaikoan, Aritzagan, Zuastin...</p>
<b>Ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	<p>Normalean etxera etortzen ziren esnetara, baina kalera ere saltzen zen. Bestetik, arrautzak eta oilaskoak ere saltzen zituzten, eta etxean, berriz, oiloa jaten zuten. Oilaskoak saltzera Azpeitira joaten ziren astean behin.</p>
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	<p>Txindurriko iturritik eramaten zuten metal-ura.</p> <p>Bestalde, herri ura Kastañok ipini zuen Lopenen eta Mardun. Etxako depositotik joaten zen ura. Aurretik, ordea, etxean ez zegoen urik etaerrekatik hartzen zuten usurarekin edo barriekin.</p>
<b>Egurra</b>	<p>Kirtenak eta horrelako tresnak egiten zituztenak egoten ziren, adibidez, Landetako Migel. Uztarrigileei dagokionez, Presalde, Zarautzeko Sola eta Azpeitiko Etxeberri ibiltzen ziren. Eurei normalean azken horrek egiten zizkien uztarriak. Normalean pagoarekin egiten ziren uztarriak baina behin edo behin pikuekin ere egin zuten. Uztarria egiteko uraskako uretan edukitzen zuten pitzatuta.</p> <p>Garai hartan haritza nahikotxo izaten zen eta etxean zerratzen zen. Bestala, Martin Beltzak zerra zuen eta bertara eramaten ziren egurrak idi parearekin. Behin zerratuta etxera ekartzen ziren, lakak ere bai.</p> <p>Urritz makilak Izarraitzetik ekartzen zituzten, akuluak egiteko. Ondoren, ganbailan lehortzen lagatzen ziren elkar lotuta azpian karga ipinita zuzentzeko.</p>
<b>Metalezko eta zeramikazko elementuak</b>	<p>Lurrezko ontziak asko ibiltzen ziren sukalderako. Etxez etxe saltzen zutenei erosten zieten. Metalezko elementuekin ere berdin.</p>
<b>Etxean ekoizten ez zen janaria</b>	<p>Juanita Ondarroakoa etortzen zen arraina saltzera eta hari erosten zioten. Bestela, Zumaiatik antxoarekin zinkezko ontzia bete eta buru gainean zutela</p>


	emakume asko etortzen ziren saltzera. Horiei ere erosten zieten. Bestetik, mieleroak ere ibiltzen ziren, ezitia, txorixoa, gazta eta horrelako jakiak saltzen. Baieruak ere bai, galbaheak saltzen zituztenak. Sardina zaharrak ere erosten zituzten. Horrez gain, egunero olioia eta azukrea erosten zuten. Igandetean jateko garbantzuak ere erosten zituzten.
<b>Arropen garbiketa</b>	Arropak uraskan garbitzen ziren. Lopenen bazuten uraska eta bertan egiten zuten. Hala ere, Zubizaharreko uraskara ere joaten ziren. Txerri hesteak garbitzera ere bertara joaten ziren. Arropak txinbo jaboiarekin garbitzen ziren.
<b>Bestelakoak</b>	Arropak saltzen paxieruak ibiltzen ziren. Horrez gain, Zumaiatik Manolita mustrarioarekin ere etortzen zen. Tela jakin bakoitzetik zenbat behar zen eskatu eta beste batean ekartzen zuen. Gero etxean josten ziren.
<b>Ahozko ondarea</b>	
<b>Toponimia</b>	Kastainatxiki, Lurteia, Beheko Erribera, Artzuia aldea, Aranberri aldea, Olasparru, Olaberri aldea, Pago gaina...
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Angeles Egaña eta Joxe Urbietak, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



**18. MARDU**

**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

<p><b>Argazkiak</b></p>	
<p><b>Kokapena</b></p>	<p>X: 558942 Y: 4791527 Altitudea: 24m (UTM 30N ETRS89)</p>
<p><b>Planoa</b></p>	<p style="text-align: center;">Mardu kokapena</p> 
<p><b>Egungo kontserbazio egoera</b></p>	<p>Suntsitua. Poligono industrialia egin zutenean etxea goitik behera bota zuten. Aitzitik, etxe berria egin zuten beste leku batean.</p>
<p><b>Babes-maila</b></p>	<p>Ez du inolako babes-mailarik.</p>
<p><b>Baserria</b></p>	
<p><b>Jabetza</b></p>	<p>Maizterrak. Jabeak Tellendikoak ziren, Echaide y Compañía, hain zuzen ere.</p>

<p><b>Lurrak</b></p>	
<p><b>Egitura auxiliarrak</b></p>	<p>Etxe ondoko txabola.  Lokatza baserriaren erdia erabiltzen zuten gauzak gordetzeko (sagardoa, belar ondua, lurra lantzeko tresnak, etab.). Bestetik, txerria ere han hazten zen.  Etxe atzeko soroan, erreka bazterrean adreiluzko txabola. Barruan zuloa zegoen lurrean eta han erreka ura biltzen zen, gero etxera bonba bidez bidaltzeko.</p>
<p><b>Baliabideen ustiapena eta jarduera ekonomikoak</b></p>	
<p><b>Nekazaritza</b></p>	<p><u>Soroetan</u>: artoa, baba, kalabaza (lehenengo hirurak batera), patata, baba beltza, erremolatxa, arbia (arbi ona Nabarnizen egiten zenez, noizean behin handik ekartzen zituzten haziak), garia (gero ez, 1960. urtearen inguruan utzi zuten gutxi gora-behera), allubria, pagotxa eta alpapa egiten zen. Aipagarria da, garia lasto luzearekin eta buru txikiarekin irteten zela lur horietan, aitzitik, eremu altuagoetan, Errekaxon esate baterako, askoz hobea egiten zen.</p> <p>Ereiteko eta jasotzeko epeei dagokionez, arbia irailaren aurrenean ereiten zen, patata ateratako lurrean, lur harro-harroa egoten baitzen. Jaso, ostera, neguan jasotzen zen, sorotik zuzenean abereei jateko ematen zitzaielarik, hala, otsailaren azkenera arte irauten zuen. Erremolatxa aurretik egiten zen eta guztia irailean biltzen zen. Ondoren, ganbaran gordetzen zen eta animaliei ematen zieten. Artoari eta babari dagokionez, artoa San Isidro egunerako ereinda egoten zen eta behin erretzean baba ereiten zen. Irailean jasotzen zen</p> <p><u>Baratzan</u>: Baratzan gutxi egiten zen, jarduera nagusiak soroetan egiten ziren. Hala ere, baratzan labore hauek egiten ziren: azak, azelgak, tipulak, bainak eta porruak. Gerora, piperrak, tomateak, etab. Baratzako lanetan normalean emakumeak aritzen ziren landare zaintzan, nahiz eta lurra preparatzen gizonak ere aritu.</p> <p><u>Larreak</u>: animalientzako larreak izaten ziren, baita ganajatekoak egiteko ere, hau da, abereak ukuiluan zeudenez egunero belar berdea moztu eta jaten ematen zitzaien, goizean goiz eta arratsaldean eguzkia joatean. Bestetik, belar ondoa ere egiten zuten arratsaldetan. Horretarako belarra moztu eta</p>

	<p>lehortzen utzi behar izaten zen. Aitzitik, euria egin aurretik muturrak egiten ziren eta berriro eguzkia etortzean zabaldu egiten zen. Horrela, belar ondo ederra lortzen zen. Gero belar ondoa Lokatzen edo mandioan gorde edo zuhatzak egiten ziren.</p> <p><u>Lanak:</u> Lurra honela preparatzen zen: lehenengo gramana pasatzen zen, belarrak eta kentzeko, gero goldea (goldea pasatzeari itzulan egitea esaten zaio) eta area. Lan horiek labore guztientzat egiten ziren. Patataren kasuan, txarrana ere pasatzen zen, ilarak egiteko zein patata ateratzeko. Bestetik, haziak ereiten zirenean alperra pasatzen zen. Behin laboreak erein eta erneta, soroak jorratu egin behar izaten ziren, esate baterako, arta soroak zein gari soroak (garia purran-purran ereiten zen arren, aitzur estu eta kerten luzeekin jorratzen ziren). Gero laboreak bildu behar izaten ziren, aitzitik, lanak ez ziren hor bukatzen. Esate baterako, garia jo behar izaten zen, baba beltza ere bai. Horretarako inguruko baserritar denak elkartzen ziren eta ondoren guztien artean bazkaltzen edo meriendatzen zuten, horrela etxez etxe. Haien ustez baba jotzeko makina Akertzatik eramaten zuten. Bestetik, artoa zuritu eta aletu behar izaten zen, ondoren gordetzeko. Bestalde, umeek ere etxeko lanetan parte hartzen zuten, esaterako gari soroetan txoriak bidaltzen, garia murtzikatuz egindako txiklea jaten zuten bitartean (ez baitzuten txiklea erosteko dirurik).</p>
<b>Abeltzaintza</b>	<p>11 behi izaten zituzten, baina horren aurretik gutxiago izango zituztela uste dute. Horiakin batera ere, txahalak hazten zituzten. Idi parek ere izaten zuten, lanak egiteko zein probatarako. Gainera, mandoa ere bazuten lanetarako, baita astoa ere. Ahariak ere izaten zituzten, ahari-jokoetarako, baina ardirik ez. Bestalde, oiloak eta untxiak ere izaten zituzten, etxe ondoko txabolan. Azkenik, txerri bat edo bi ere hazten zituzten.</p> <p>Bestalde, ezbehar bat tarteko abereren bat edo hiltzen bazen, hermandadeko auzokoen artean banatzen zen haragia aprobeatzeko, eta trukean dirua edo beste janariren bat ematen zieten. Horrez gain, behiak ernaltzeko ixkoa etxez etxe ibiltzen zen, Guardi Zaharreko Nazariok zuena eta trukean ordaindu behar izaten zioten.</p> <p><u>Lanak:</u> Animaliei jaten emateko lehen aipatutako ganajatekoak egiten ziren. Bestetik, abereak larrera ateratzen ziren eta itxiturarik ez zegoenez “ganau” zaintzen egoten ziren.</p>
<b>Frutagintza</b>	<p>Fruta arbolak etxearen inguruan zeuden, sagastiak albo batera utzita. Honako hauek zeuden: txermena, lau intxaurrondo, mizpirak (etxearen atzeko aldean eta erreka bazterrean), bi edo hiru aran, mahatsa eta pikondoa. Erreka barrenean ere pikondo handia zegoen. Sagastiak, ostera, Intzeletan, Barrutian eta Aurreko Barrutian. Bertan sagar mota asko zeuden: barragorriak edo karmen sagarrak, sagardo sagar gorriak, moliuak, txalakak, aldamarra, san inazio sagarrak, san pedro sagarrak, errege sagarrak, gorritxuak, urdin sagarrak eta sagardo sagar gehiago.</p> <p><u>Lanak:</u> Fruta arbola landareak etxean ateratzen ziren, hazitik eta ondoren txertaketak egiten ziren brearekin. Azkena, Akertza gainean egin zuten mintegia. Bestetik, sagar batzea ere lan handia izaten zen, heldu, gazte zein ume, guztiak aritzen ziren, otarrak hartu eta sagar batzen. Sagarrak zakutan gordetzen ziren eta zakuak lotzeko lehen zumeak erabiltzen ziren, Arroako Olara zume bila joaten zirenaren oroitzapena du Joxek.</p>

<b>Janariaren eta hazien kontserbazioa</b>	<p><u>Haziak</u>: batzuen loreak txintxilika lehortzen uzten ziren, hots, erremolatxa, tipula eta azelga. Beste batzuenak, ostera, haziak lehortu eta biltzean ontzietan gordetzen ziren. Esate baterako, arbia. Arbiak, ordea, lan handiak ematen zituen, izan ere, haziak jasotzeko soroko landareak ez zuen balio, sorotik landare batzuk hartu eta lekualdatu behar izaten ziren. Horiek lehortzean jaso eta izara zahar batean eguzkitan uzten zen, hazia ateratzeko.</p> <p><u>Janaria</u>: Fruta ganbailan gordetzen zen, itxi gabe zegoenez haizea sartzen zelako, eta horrela hobeto kontserbatzen zen ganbaran baino. Aletutako artoa ere ganbailan gordetzen zen. Baba, berriz, ganbaran gordetzen zen. Tomateari dagokionez, enbotillatu egiten zuten eta horretarako tomatea egin eta papeleta batzuk botatzen zizkioten. Gerora esan zuten hori kaltegarria zela eta baño marian egiten hasi ziren.</p>
<b>Etxeko industria tradizionala (transformazioko jarduerak)</b>	<p>Ekonomikako labeaz gain ogia egiteko labea zuten, baita amasa ere (orea egiteko). Hala ere, eurek ez zuten ezagutu bertan ogia egiten, okinari erosten zioten. Bestetik, tolare koskorra zuten, sagardoa egiteko.</p> <p>Artoa irintzera errotara eramaten zen, hauen kasuan Larrondoko errotara. Errotariak eramandako artoaren zati batekin geratzen ziren.</p>
<b>ekoizpenaren soberakinaren kudeaketa</b>	
<b>Salmenta</b>	<p>Esnea saltzen zen. Kalekoak baserrietara joaten ziren esne bila. Aitzitik, gerora kalera saltzera joaten hasi ziren. Hala ere, aurretik Sakon Berriko Arantxa, Zumaira egunero joaten zen zaldia karroarekin hartuta eta ingurukoek hari ematen zioten zerbait saltzeko izanez gero. Hau da, Zumaiko enkarguak berak egiten zituen, hots, botikak ekartzea edo gibela erosten zuen baten bat gaixorik egonez gero emateko. Gero, Azpeitiko plazara joaten hasi ziren eta bertan sagarrak eta oilaskoak saltzen zituzten.</p>
<b>Kanpoko hornikuntza</b>	
<b>Ura</b>	<p>Metal-ura Txindurriko iturritik hartzen zuten edateko. Uraren bila normalean umeak edo gaztetxoak joaten ziren, tuntuxa edo marmita hartuta. Aitzitik, etxean bazuten herri ura (gero jarrita). Etxearen mandategiaren ondoan uraren deposito bat zegoen eta handik sukaldeko arraska marroi zaharrera joaten zela ura. Bertarako ura teilatutik eta erreka ondoko txabolatik hartzen zuten. Bestalde, arraska berrira herriko ura joaten zen.</p>
<b>Egurra</b>	<p>Oro har, etxeko egurra erabiltzen zen, izan ere, Basatxikin pago eta haritz batzuk zituzten. Bestetik, Txindurriko zuloa libre antzera geratu zenez, handik ere egurra hartzen zuten kertenetarako eta beste hainbat gauza egiteko (lizarrak, altzak...). Horrez gain, Artzubiako etxatik ere hartzen zuten. Bestetik, su egurretarako etxeko adar eta zotz guztiak aprobetxatzen ziren, sagarrondoak kimatzean edo zuhaitzen bat erortzen zenean. Otea ere mozten zuten sutarako. Ez zen egur lodirik erabiltzen sutarako, esan liteke sobranteak erabiltzen zirela. Urritz makila, ostera, Izarraitz eta Agirotik ekartzen ziren. Makilen fardoak egin eta mandioan gordetzen ziren, gero behientzako makilak eta idientzako akuluak iztenarekin egiten zituzten.</p> <p>Uztarria egiteko egurra etxeko basotik edo hala ezin bazen kanpotik ekartzen zen. Egur hori pitzatuta uretan beratzen eduki behar izaten zen eta Lopeneko uraskan izaten zuten. Gero, uztarria behar zenean uztarrigilea etortzen zen idi parearen neurriko uztarria egitera. Horretarako Uztarri ezizena zuen gizona etortzen zen Arrua Errekatik. Uztarria egin arte jatekoa ematen zien.</p>
<b>Metalezko elementuak</b>	<p>Etxez etxe ibiltzen ziren saltzaileei erosten zieten.</p>



<b>Zeramikazko elementuak</b>	Sukaldeko lurrezko ontziak, tuntuxa eta horrelako elementuak batetik bestera saltzen ibiltzen zirenei erosten zieten. Aipagarria da, Arroa Behean teila fabrika zegoela eta beraz teilak handik erosiko zituzten.
<b>Etxean ekoizten ez zen janaria</b>	Arroa Beheko dendetatik (Olanonekoa eta Joxe Ramonenekoa) olio, azukrea eta gatzarosten zuten. Ekonomatoan ere bazen denda, baina bertan langileak bakarrik eros zezaketen. Noizean behin haragia erosten bazuten Olanonean erosten zuten, izan ere, astean behin harategikoak saltzen zuten bertan. Bestela, Zestoara joaten ziren astean behin bertako kooperatibara zerbait desberdina behar bazen, hori, ordea, beranduago izan zen. Arrain freskoa Zumaitik ekartzen zuten, aita goizeko 6:30etarako mezetara joaten zenean. Baita ere, Ondarroatik Juanita etortzen zen arrain saltzera Arroara bertara eta arrain asko saltzen zuen (toiak, katuarraia, zabalera, izurdia...). Eurek arrain asko jaten zuten, esate baterako, San Jose egunean urtero angulak jaten zituzten, gaur baino merkeagoak baitziren. Bestetik, ardozalea ere etortzen zen. Izan ere, etxe denetan sagardoa edaten zen, baina ardo apur bat ere erosten zuten. Hori, ordea, gerora etorri zen, diru pixka bat zutenean, ahal izan zutenea. Lehen etxeko sagardoarekin konformatu behar izaten zuten. Mielerok ere ibiltzen ziren etxez etxe, bizikletaz bizkarrean kaja batzuk jatekoz beteta eramanez. Horiek ezta, gaztak, txorixoak eta beste hainbat janari saltzen zuten. Sardiña zaharrak eta bakailao gazitua ere erosten zituzten, normalean Azpeititik.
<b>Arropen garbiketa</b>	Zubi-zaharren ondoan, errekan, zeuden harrietan garbitzen zituzten arropak. Garbiketarako euren garaian erositako jaboia erabiltzen zuten, aitzitik, izarak garbitzeko sutako hautsarekin zinkezko barriñoian beratzen lagatzen ziren eta garbitu ostean <i>larraiñian</i> zabaltzen ziren lehertzeko.
<b>Bestelakoak</b>	Etxera joaten zen Zumaiako Manolita telak saltzera. Hark muestrarioa izaten zuen eta tela jakin bakoitzetik hainbeste enkargatzen zitzaion. Gero etxera ekartzen zituen enkargatutako telak. Berari erositako telekin etxerakoentzat arropak egiten zituzten, etxeko emakumeak arduratzen ziren horretaz. Josteaz gain puntua eta gantxilloa ere egiten zen, jertseak eta galtzerdiak egiteko. Perratzailea etortzen zen noizean behin, Oikiako Muniosoroko perratzailea, alegia. Perratokia hasieran Marduitxeberri eta Txindurri artean zegoen, gero, ordea, Txindurri baino aurrerago ezarri zuten. Bestalde, auzokoen artean bideak garbitu eta mantentzen ziren eta baten bat ez bazen auzolanera joaten bertatik pasatzea galarazten zieten.
<b>Ahozko ondarea</b>	
<b>Toponimia</b>	Intzeleta, Basatxiki, Basatxiki gaina, Biola, Mulundo, Paskultzo, Soroluze, Sorozabal, Lokatzako soroa, Barruko gaina, Sakulupe, Barrutia, Aurreko Barrutia, Akertza aldea
<b>Bestelako hitzak</b>	Ittulan
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an. Mari Karmen Eizagirre Urrestilla, Itziar, 2021eko martxoaren 29an.
<b>Argazkien jatorria</b>	Planimetria argazkiak: GeoEuskadi bisorea. Bestelako argazkiak: baserritarrek emandako argazkiak.

## 19. MAIZELAI

### Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak


**Argazkiak**




**Kokapena**

X: 557840 Y: 4791099 Altitudea: 141m (UTM 30N ETRS89)




<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Nahiko zahartuta. Ondoan etxe berria egin zuten. Hala ere, zutik eta nahiko ondo kontserbatzen da.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>20. MULUNDO</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Kokapena</b>	Planoan ageri den eremu horretan zegoen kokatuta. Maizelaiko pinadiaren barnean eta Txindurritik Arroa Behera doan bidearen beheko aldean.

<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko-arkeologikoak</b>	XIX. mendearen amaieran bertan egongo zen, agian, XX. mendearen hasieran ere bai. Elkarrizketatuek beraiek ez dute bertan zantzurik ikusi baina haien gurasoek han zegoela esan zieten.
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Agian bertako harriak ez dira kontserbatu ere egingo.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

<b>21. OLA</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 559512 Y: 4792286 Altitudea: 16m (UTM 30N ETRS89)

<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Suntsituta. Bonbas Azkue enpresa egitean goitik behera bota zuten.
<b>Babes-maila</b>	Ez zegoen babestuta.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Inguruko baserri nagusienetakoa zen lur sail asko eta onak zituen, gaur egun Arroa Beheko herrigunea dagoen eremu hori guztia, Sakuluperekin eta Malluneko lursailekin muga egiten zuelarik. Soro ederrak zituen, artoa, baba, garia eta denetik egiten zuten. Abereak ere bazituzten. Gero Ricardo Azcuek erosi zuen baserria haren lurrekin eta bertan Bombas Azcue enpresa eraiki zuen.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Primi Garate Urbietta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 13an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



**22. OLABERRI**



**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

**Argazkiak**



**Kokapena**

X: 557818 Y: 4790790 Altitudea: 114m (UTM 30N ETRS89)


<p><b>Planoa</b></p>	
<p><b>Zantzu historiko- arkeologikoak</b></p>	<p>Etxe zaharra erreka ondoan zegoen. Aitzitik, erre egin zen eta gorago egin zuten etxea, gaur egun dagoen lekuan. Hala ere, duela hamar bat urte erre egin zen eta ia goitik behera berritu behar izan zuten. Honako hau da etxe zaharraren kokapena eta geratzen diren arrastoak (kontuan hartu behar da etxe berria erre zenean hango harriak eta etxe zaharra zegoen leku berberera bota zituztela):  X: 557653    Y: 4790691    Altitudea: 69m (UTM 30N ETRS89)</p> 







Bestalde, Aritzaga baserriaren Eusko Jaurlaritzaren Fitxan 1543an Aritzaga baserria eta burdinola berria agertzen direla dio. Hala, baliteke Olaberri (lehengo zaharra) burdinola hori izatea, izan ere, bertan erreka pasatzen da eta presa moduko zerbait dago. Hona hemen argazkia:





	
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Ona. Modu egokian kontserbatzen da, izan ere, duela urte batzuk erre egin zen eta goitik behera berritu zuten.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Jexux Egaña, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 8an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.

**23. SAKONBERRI**

**Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak**

<p><b>Argazkiak</b></p>	
<p><b>Kokapena</b></p>	<p>X: 557807 Y: 4792027 Altitudea: 53m (UTM 30N ETRS89)</p>
<p><b>Planoa</b></p>	
<p><b>Egungo kontserbazio egoera</b></p>	<p>Ona. Egoera onean kontserbatzen da.</p>
<p><b>Babes-maila</b></p>	<p>Ez dago babestuta.</p>
<p><b>Erreferentziak</b></p>	
<p><b>Planimetria argazkien jatorria</b></p>	<p>GeoEuskadi Bisorea.</p>



<b>24. TXINDURRI</b>	
<b>Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak</b>	
<b>Argazkiak</b>	
<b>Kokapena</b>	X: 557952 Y: 4791247 Altitudea: 98m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Egungo kontserbazio egoera</b>	Ona. Modu onean kontserbatzen da.
<b>Babes-maila</b>	Ez dago babestuta.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Etxe ondoan metal ura darion iturri bat dago, herritar asko lehen bertara joaten ziren ur bila.
<b>Erreferentziak</b>	
<b>Ahozko testigantzak</b>	Angeles Egaña eta Joxe Urbieta, Arroa Behea, 2021eko martxoaren 25ean (grabagailuz dokumentatua). Manoli, Mari Karmen eta Joxe Eizagirre Urrestilla, Arroa Behea, 2021eko otsailaren 20an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.



25. Zelaikoa

Identifikazioa eta ezaugarri orokorrak

Argazkiak





	
<b>Kokapena</b>	X: 558723 Y: 4790565 Altitudea: 70m (UTM 30N ETRS89)
<b>Planoa</b>	
<b>Zantzu historiko-arkeologikoak</b>	Iñaki Azkuneren “Zestoaren Historia” liburuan, Aritzaga Zelaikoa agertzen da XV. mendean.
<b>Eguno kontserbazio egoera</b>	Ona. Ederto kontserbatzen da.
<b>Babes-maila</b>	Balizko eremu arkeologikoa izendapena du.
<b>Ezaugarri esanguratsuak</b>	Bertan toleara zegoen. Bestetik, bertan bizi zirenak amerikanoak ziren, izan ere, Ameriketara joan zen bertako gizona.

<b>Erreferentziak</b>	
<b>Dokumentuak</b>	Azkune Mendia, I. (2016). <i>XIV. Mendeko agiriak: [XIV. m. 1] - [XIV. m. 24]</i> . Zestoaren Historia (I).
<b>Ahozko testigantzak</b>	Milagros Urbieta Illaramendi, Arroa Behea, 2021eko apirilaren 14an (grabagailuz dokumentatua).
<b>Planimetria argazkien jatorria</b>	GeoEuskadi Bisorea.